


J. M. SATRUSTEGUI

LUZAIDE'KO KANTIAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

SB-933

10231

LUZAIDE'KO KANTIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

65

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta

Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

J. M. SATRUSTEGUI

LUZAIDE'KO KANTIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

1967

Depósito Legal S. S. 380/67

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1967**

ESKEINTZA:

*Californian den Arrosagaray
Juan Cruz Bordelekoari
Esker onaren ongi ikus nahi
Eta laguntzaren sari.*

J. M. SATRUSTEGUI

ARKIBIDEA

Luzaide	11
Lelo zaharrak: Haurrenak	14
Ezkontza solas	18
Arno zale	22
Axeri dantza	23
Lurraren pian sar nindaiteke	26
Ikustera jiten nitzazu	34
Napoleonen bertsuak	39
Preottoaren mutila	45
Urzo xuri pollit bat	50
Antton eta Maria	53
Bankako lau andere	58
Ondarrolako urzo baten gainian	62
Baygorriko Urzoa	67
Agerreko Bazil	73
Eskol etxeko lanak	76
Herriko zorrak	80
Luzaideko gora-beherak	86
Azken karrosa	92

Hil piztua	100
Juan Cruz Arrosagaray	109
Luzaideko gazteria bi parte	113
Luzaidar bat kantuz	119
Ospitaleko bisita	123
Artzain eskualduna	127
Kaliforniako bidaya	130
Mañes Urruti'ri	135
Ezkontza famatia	140
Judu erratua	148

LUZ A I D E

Bide luze eta anitz biurgune; dena mendi, zubi txiki eta botiga; egunaz kalme eta gauaz erne, badakizue orai zer den Luzaide.

Azoletako amu-arrain finak gogora eka-rriz, Ibañeta kaskotik arraintzan dabillen norbaiten ari nahasia dirudi bideberriak; eta peko zolan, amu xuri bezala, bazterretxeak.

Abilak dira Luzaiden. Nola bizi diren ez dakit. Jainkoak pilota eman eta berek jokatzen ikasi... Elur xuri izanki Ibañetan, Donibanen bada kafe beltza. Ogia balin bada eskas Españian, Frantzian baditake irina. Emen iruzki delarik, an itzal...

Erdara ikasteko ez dute ahantzi eskuara, eta anitzak frantsesez berdin trebe dira. Eta zer gauza goxo, extia, Luzaideko eskuara! Manezaundiren izkuntza baliosa.

Etxean luzaidar; español eta dena "tore-

ro”, botigetan; Donibaneko plazara orduko, garaztar. Etxean jan eta Frantzian lan. Erreka aundiko xoriak bezala oihan zabala dute luzaidarrak maite eta, traba guti nahi bidean. Europa aldera idekitako leio zabala du Luzaide Nafarroak.

Urzoak ere barne dira ango bizimoduan eta, urzo pasa urre bilakatzen da Gabarbiden. Zenbat urzo hiltzen da Luzaiden? Ez da aisa jakitea. Ori bai; urzorik hiltzen ez delarik gezurrez dira zakuak betetzen... eta biramuneko ere uzten. Ihiztari solas.

Urrian ez da lanik Luzaiden. Ankaz gora joaiten dira gauzak. Urzoak dira legekanpo dabiltzanak —alegia, “kontrabandistak”—; eta luzaidar bakoitza karabinero. Ango zalaparta!

Eta besteak beste, txoko polita da Luzaide. Garbia, bera bezala. Garbi ditu errekan urak, amu-arrainaren begien dirdiran. Etxe guziak xuri eta anitz lili; jendea ere huntsa bezi.

Txirriskineko urak bezala Frantzi aldera dutela joera!!

Ortako dira diren lekian. Zozoak behar lukete izan, bertzela. Lekuan lekuko gisa... eta aintzina! Ez da ori bekatu aundia.

Eta ez ginuen errana; Luzaidek baditu be-

re kantiak. Nork ez du entzuna "Boryel" bertsulariaren izena? Oraikoan beste zonbait kantu argitaratu nahi ditugu. Ez badira ere denak bertan sortiak, bai amultsuki atxikiak. Aberastasun bat da gure erriak bertsutan daukatena eta ez bilduz, galduko dira.

Ona emen Luzaideko kantiak.

LELO ZAHARRAK

Noizkoak ditugu? Nundik nora dabilta? Zer gertaera ahanziaren oroitzapenak dira? Ez da aisa erraitea. Bakarrik, or dira eta erriak errepikatzen ditu.

Bilduz geroz, argia nunbaitik etor laike; biltzen ez badira, betiko galdu laizke, ber-tze anitz bezala.

HAURRENAK

Gertatzen ahal dena da auetako zombait guk ez dakigun egile ezaguturen baitenak izaitea. Edo osoago beste nunbait errepika-tzea. Argia egiten asteko modu bat, batzuk bester berri emaita.

Ondarrolan bildua dut "*Din, dan! Bale-ran!*". Doñu politarekin kantatzen dute eta, itxuraz, haurrak altzoan jostatzeko da.

Din, dan! Baleran!
Balerakuak elizan
Zazpi zortzi yantza.
Tita bera nun da?
Hila, Parisen da,
Eper eta hari
Ehun behiak ernari.
Ek oro norendako?
Gure haur ttipiarendako!

Onen gisako jostagailua da Eskualerri gu-
zian egiten den "*Arre, Arre Mandoko!*".
Luzaidekoak dio:

Arre, arre mandoko
Biar Iruñerako
Etzi Bayonarako.
Andik zer ekarriko?
Zapet eta gerriko.
Ek oro norendako?
Gure haurrendako!! (1)

Haurra lokartzeko kantu bereziak ba di-
ra. Gehienetan metaka aipatzen dituzte be-
ren gauzak —haurrak ezagutzen dituen egu-

(1) Odette Urrizaga, 3 urteko haurrari Ondarrolan
entzuna diot au:

"Xirula mirula kantari
Erromako zubian sar adil
Klis' klas! Ateradi!"

noroko gauzak—, nekez xuxentzen den oihan aundi bateko bide mearra bezala aria galduz joaiteko.

“Apez eta fraile, apairu on-zale”, errana den bezala. Ona emen, haurreri kantatzen dieten bertsu bat.

Ameka barrika xakoli,
Amar orga ogi, (2)
Bederatzi idi,
Zortzi behi,
Zazpi urde,
Sei ahari...

.....

Bi tortollo,
Bi tortollo ta
Eper bat:
Lau apez eta
Amasei freidek
Apairu on bat zuten, ba!”

Eta eliz-gizonez ari geranez gero, ba dira beste lerro zonbait aipu dituztenak. Eskualerrian suyet aberatsa izana!

Bordeleko landetarik
Ageri da Parise;
Nik an ere ba ditut
Bedratzi anaie

(2) Orga = gurdi.

Iru apez,/bi fraide
Eta bertze lauak
Bolanyer. (3)

Ondarrekoetz, badira haurren bertze bertsu labur batzu. Eskualerri osoan egiten dira "Gatuarenak". Aurpegia perekatuz erraiten dute Luzaiden:

Marrau!!
Jan zak haur au!
Gaur edo biar?
Gaur, gaur, gaur. (4)

Bi eskuekin elkar joka erraiten dute:

"Dalo txin!
Gure haurrak bost otxin!" (5)

(3) Bolanyer=okiñ (panadero).

(4) Beste erri batzuetan: (Urdiain'en)

Katuba mitxirri mauba!
Katuba eltzian gora!
Bost umiak arrastixora,
Seigarrena kañu arra;
Ura noren berra?
Gure aur txikiyaren berra!"

(5) Arruazun erraiten ziguten:

Talo, talo txin!
Ator etxera Matxin
Opil aundi batekin
Txin, txin.

EZKONTZA SOLAS

Ezkontzeko galdia. Nexkatoaren izenean emanak dira; baña, amaren erantzuna. Bertsu paperretakoak iduri dute:

Gizon zahar-zahar batek
Barda amari,
Mandatu egin dio
Behar ninduela ni.

Gure amak errepostu
Nola eman bai daki,
Etxian ba dugula
Gizon zaharrik aski.

* * *

Beste auek badute pozoin poxia. Erritan "Mariaren Alabak" sartu zirelarik, beti gertatzen dena, mutilak uste izan zuketen berrek galtzeko zerbait ba-zutela. Begitan zituzten orduko "kongregantak". Bertsutan erraiten dena ezin-ikusi horren marka da. Betiko solasa.

Lasarra zaharraren kantiak omen dira. Berak eginak edo norbaiti eginaraziak? Bertsu zaletasun aundia zuen eta, berak eginak zitazkela uste dugu. Esteban Echeverria Iturburu bazterretxeko semeari artuak, (1959);

(Doñua: Auspoa, 55, 26' gn. orri-aldean)

1/ Oraiko neska gaztiak
Amarretarik zortziak
Pretensioez betiak.
Bertzeren gustuz hetetzen tuzte
Pententez beharriak,
Eraztunez eriak,
Soinian espartin xuriak:
Mutilen gustuz guziak.

2/ Ez dut erraiten bertzerik
Bai da inportantagorik,
Kongregant oien, segurik;
plazetan ere ibiltzeko
Ez dute nahi mutilik,
Bi begiak apalik,
Ezpainak erdi etsirik,
Arrats artean segurik.

3/ Heldu denian iluna
Aspaldi begira daudena
Egiteko fortuna,
Gustu onez xerkatzen dute
Berek eskas dutena;
Ez dut bertzek errana
Nihauk frogatu dudana:
Hek lotzen dira juntena.

4/ Gero zer zaiote gertatzen?

Itz laburez dut erranen
Guziak jakin dezaten:
Aitzinetik asten zaizkote
Kotillunak laburtzen,
Estomakak larritzen,
Gerri ondua loditzen;
Orduan dira tristatzen.

5/ Nigarrez ordu beretik,
Bi begiak bustirik,
Eginaz urrikiturik,
Berehala kentzen dituzte
Pententak beharritarik,
Eraztunak eritik,
Zapeta xuriak soinetik;
Nik ez dut heien beharrik.

Beste bi aldetatik ere kantu onen berri izan dugu:

I.—*Iruñeko Jose Agerre zenaren kahierra*. An diren Luzaideko kantiak Jose M.^a Iraburu jaunak bere gazte denboran bildu, eta emanak zizkion. Lekarotz'en jasoak dituzte.

II.—*Jose Ariztimuño apez jaunaren bilduman* ere badator. (1933-2-XI). Oar au ekartzen du: “unos tejeros benabarros los cantaban en Elizondo hace más de tres años.” (Aitzol, cuad. manus., n.º 3).

Aldaketak:

1/7 soñian zapata xuriak. 2/1 Bertzeak uzten tut
ixilik 2/3-4 File Maria seguri / Plazan ere dantza-

Senar-emazten arteko gora berak ere aipatzen dituzte. Ona emen zonbaitzu; ondar emandakoen kutsua ba ote duten!

Senarrak:

Oraiko anderiak
 Plaza yantzan ari
 Eper errez aserik.
 Gizonak, aldiz,
 Supazter zokotan
 Belaun kozkuak errerik;
 Belaun kozkuak errerik eta
 Artoz ere goserik.

tzeko. 2/6-7 Beti begiak apalik / Ezpaña erdi itxirik / Ilun artian segurik.

3/ Datorrenian iluna
 Aspaldian begira zaudenak
 Iteko bere fortuna, tarilaralai!
 Onak ain xerkatzen dute
 Bere falta dutena,
 Ez dut bertzek errana
 Baizik probatzen dutana
 Oi lotzen dira dutanai
 Trailaralai rai rai rai.

4/2 Itz laburrek ez dute erraten 4/4-5 Bereala asten zaizkote / Bere saiak laburtzen. 4/7 Gerriak ere loditzen

Bostgarren bertsua.—Luzaideko paperrak lenbiziko iru puntuak falta ditu. Agerrek bildutakotan, bigarrena ez besteak badira. Elizondoko cuadernoak denak ekartzen ditu.

Emazteak:

Oraiko gizon tontolo,
Taloze ase ta beti lo!
Behar dituzte, halo!
Zazpi bat talo
Apairuan jateko; (1)
Apairuan jateko eta
Zortzigarren bat
Gosetzen direneko.

Bertsulariak:

...haur bat sabeluan
Bestea besoan,
T'artorik ez etxian!
Artorik ez etxian eta
Senarra jokoan.

Ez dute aiekin ikusteko aundirik bildu
ahal izan ditugun beste anitz bertsoak. Ikus-
ten zaie oraiko bertsoarien ozpin-olioa eta
ez ditugu emen sartzen.

ARNO ZALE

Españaiko "Celestinak" bertsoak ar le-
zazke bi bertso auek:

1/ Ni hiltzen naizenian
Ene azken orenian

Ziek, gizonak, jinen zizte
Zien basuak eskian
Pinta arnoaren edatera
Ene tunbaren gainian.

- 2/ Tunba ortan izanen da
Mahats arno dupa bat;
Aren gainian eskribitua,
An badagola gizona
Bizi zelarik maite zuena
Arnua ziek bezanbat.

AXERI DANTZA

Ez dute izen polita Luzaideko "*Atxetatu-pinak*". Eta izan ere, josteta trakets, bortitza da. Garai bateko ihauterien oroitzapena.

Bi mutil gaizki jantzien gain izaten da festa: bat larruz estalia eta emakume arropan bestea. Biak sonbel aundi, ator zirzila eta elorri latzekin.

Esku bana elkarri lotua dute, eta beste eskuan "*zarpila*". Trapuzko pilota estua izaten da "*zarpila*", ondora etortzen denari jartzeko. Soka motz zorbaitetik zintzilika erematen dute.

Tanborra beste soinurik ez du jokoak.

Plazari iru inguru eman ondoan hasten da kalapita. Ez da gehiago tanborrik; plazako jendeak ere ixil. Nundik nahi sartzen zaizkie etsaiak eta zarpilak badute nun eman. Batek ator puska, kentzen die; besteak sonbela. Erdi buluzirik gelditzen dira biak.

Garaien batez auzo errien arteko istillua izaten zuten. Arnegi-tarrak luzaidarren kontra. Orai ez da alakorik.

Nundik heldu da joko au? Zaharrak diotenez, ihauteritatik. Orduko "*maskak*" omen dira. Baziran axeria eta otsoa; artzaina eta laboraria, beren zata eta zamarrekin. Dantzariak, aldiz, soinuaren inguruan ibiltzen ziren. Auek dantza egiteko artetik, "*axeriak*" ollo kafi guziak ibiltzen zituen, arrapatuak ebasteko. "*Jaun*" eta "*anderea*" ziren saski eremaileak.

Ilun nabarrean, afaria prestatzen asi bano lehen, larru eta gonakeri oiek kentzeko egiten zituzten "*atxetatupinak*". Gaindola eta Gañekoletako mutilak "*Bordel*"en peko aldeko zelayan zuten besta.

"*Axeri dantzak*" bazuen bere kantia. Aspaldi galdua dateke Luzaiden eta airea nola zuen ez dakigu. Dirudienez, buluzi ondoan egiten zuketen.

- 1/ Axeri zar bat bainan ernia,
ladron eta ollo jalia,
inguru guzietan higindia
izan zen artean artia.

Errepika:

Axeri zarra, nun duk buztana? (bis)
Jinkoak nasaiki emana...?

- 2/ Bainan axeria bai goserik
atera zen buztana utzirik;
atera, diot, gibela mozturik,
gauza ortaz ahalgeturik.

- 3/ Nik ez dakit, egia erraiteko,
auxe nolaz zen gertatu;
dakidana zuei kondatzeko
artetik zela eskapatu...

Vid. KANTUZ. "Acheri dantza"; 194'gn. orr.
J. M.^a Iribarren. "Historias y Costumbres"; pág.
230.

LURRAREN PIAN SAR NINDAITEKE...

Maitale, amoranten gauzak, gehio balira ere.

1824'ko Azaroaren 23'an ezteiak ziren Luzaiden. Eztei famatiak! Maria Josefa Ferran, "Marimaite"nekoa; eta Pedro Barzelona, "Garnadako" semea ziren ezkontzen.

Garnada, amalau etxerik zaharrenetako bat, aipatua zen garai artan. Handik dator deitura au. 1333'ko paperretan aipu da Garnadako etxekandria; eta iru Erretor garnadatarrak izanak dira, segidan, Luzaiden:

D. Juan Granada (1702-1714)

D. Pedro Granada (1714-1747)
eta D. Fernando Granada (1747-1781).

Emazte-gaiaren aldetik etzen paper zaharrik herrian; bainan, sosa bai, ugari. Biarne-saren etxea erraiten zakoten orduan eta, "Marimaite" zaio gero gelditu.

Garnada xaharra bezala, au berria. 1782'-

an Josef Casaos biarnesak, egina. Etzuen anitz iraun; erreboluzio denboran, amalau urte zituela, erre zuten frantsesak. 1796'koak dira oraiko paretak; arri marratua badu atarian.

Iru haurretarik, iruak hil zitzaizkion. Ines Arretxe egin zuten, orduan, etxeko. Berez Anauz'tarra izanki, Luzaiden bizia egin zuen, geroztik. Santiago Ferran'ekin ezkondu ondoan, sei haur ukan zituen: lau seme ta bi alaba. Zinez agotan ibiltzeko ekarriak zituen mundura bi nekattoñoak!

Izan ere, xarmantak izan behar zuten, famen arabera. Zaharrena, Maria Josefa; eta Ana, bere aizpa ttipia. Errekesta aundia omen zuten. Ageri zazteken inguruan.

Zaharrenaren ondotik auritz-tar gazte bat zebillen gehienik. Lanbidez, kabaletan okupatzen zena, nunbait etzen nexkatoaren begikoa. Maitale onen bihotz-mina dute bertsuak adierazten.

1824'ko Azaroaren 23'an, eztei egunean, ixilduko ziren elapide guziak. Etxe oneko alabaren linyeria eta, iru ehun ta berrogeitamar urrezko "Luis", iruna pezetakoak, bere dotea. Ala dio amari itzuli zion agiriak. (Orduko mila pezetan gora!)

Eta paperrek erraiten ez dutena, naiz Luzaideko xaharrek etzuten ahantzia: beste maitale batek errandako itzak, beharritan,

“Lurraren pian sar nindaiteke, maitia zure ahalgez...!”

EGILEA

Zonbaitzuri gogor egiten zaie “Bordelena” eztela erraitea. Luzaiden, beintzat, beren bertsulari aundienarena bezala jotzen zuten anitzak. Baziren beste batzu, ezetz erraiten zutenak...

Manezaundik ere, jakintsuen artean, Bordelena zela uste zuen. Auek dira bere itzak: (Boryelez mintzo da)

“Omen haundia zuen Benafarroan eta Laphurdin. Ehunka utzi dauzkigu bere pertsuak ezin geiago ederrak. ¿Nork ez du ezagutzen hango Eskuak-herrian bere kanta miresgarria “Lurraren pian sar nindaiteke”? Baztango “Oinazez” abestiaren parekoa da, eta bere historia ezta bihotz zolaraino sartzen da, amodioaren pairamenak erakusten daukuna, bihotz zauritua agerian ezarririk”. (1)

Gaur ez da dudarik, puntu ortan. “Lurraren pian sar nindaiteke”, ez da Bordelek eginna. Orai bano lehen adierazia dugu beste nunbait (2).

(1) “Prosistas Navarros”, A. Irigaray. 58^ogn. orr.

(2) J. M. Satrustegui. “Anotaciones de la obra literaria de Bordel a través del testimonio popular”. B. A. P. 1962; p. 241.

Luzaideko “Errekalde” eta “Pello” Ondarrolakoa aipatu nahi nituzke hemen, bertze anitzen partez (3). Bertsu kontuan etziren nornahi! Gogoan ditut Errekaldek erran itzak: “Kantu au ez da Bordelena. Jakinen zuen gure aitak! Lagun aundiak ziren Manez eta biak...”

“Pelloineko” nagusiak, Garnadako alaba zuen bere Amai-arreba. Miletan entzuna zien xaharrei, beren familiko bertsuak zirela. Etzien sekula aditu “Bordelek” atera zituenik...

—Nor da, orduan, kantu onen egilea?
—galdetu nien.

—“Pudes” zaharra! —erantzun zidan Errekaldek. “Hala aditzen nakon gure aita zenari”.

“Pudes”, gaur, Ondarrolako etxe baten izena da. Garai hartan “Heigorria” erraiten zaketen; eta “Pudes” izengutia. Nor zen erran gabe joana dugu Pudes zena. Noizbait, behar bada...

Arte hortan, utzi dauzkigun bi kantuak aski dira bertsulari baten izena errespetuz aipatzeko.

(3) Juan Caminondo, “Errekalde”. Kantari ona. 1961’an hila, 79 urtetan.

Pedro Urrizaga, “Pelloinekoa”. 1960’an hila, 72 urtetan.

- 1/ Lurraren pian sar nindaiteke,
maitia, zure ahalgez,
bortz pentsaketa eginik nago
zurekin ezkondu beharrez;
borta barnetik zerratu eta
beti ganberan nigarrez,
pentsamenduan airian eta
bihotzetikan dolorez,
ene xangrinez hilarazteko
sortu zira arabez.

- 2/ Oren onian sortua zira,
izar ororen izarra,
zure parerik ez da agertzen
ene begien bistara;
espos-laguntzat galdegin zintudan
erran neraizun bezala,
bainan zuri ez iduritu
zuretzat aski nintzala,
ni baino lagun hobe batekin
Jainkoak gerta zitzala.

- 3/ Mariñelak joaiten dira
itsasorat untziko,
zureganako amodioa
ez dut sekulan utziko;
xarmegarria, naiz ez giren
elgarrekilan biziko,
behin maitatu zaitut eta
etzaitut hastiatuko,
ene bihotzian sartua zira
eternitate guziko.

4/ Primaderan zoienen eder den
xoria kantuz paguan,
amodiuk bainerabilka,
maitia, zure onduan;
deusetan ere etzaitut nahi
bortxatu amodiuan,
ni xangrin huntan hilikan ere
satisfa zaite goguan,
malerusik aski izanen naiz
nihaur bakarrik munduan.

5/ Amodioa harratuak
badu sofrikario,
bihotzen barna bada
xangrinak berak hil dio;
izaiten tudan kontseiluek
deusik ez dute balio,
denbora pasa eta ondoan
ez baita nezesario,
nik etzaitut kitaturen
odola ixur artio.

Eskutan genituen iturri guziak bateratuz egina
dugu eman dugun kantia. Guk ezagutzen ditugunak
auek dira:

I.—*Chaho'ren bertso-bilduma* (Telesforo Monzon-
-Olasko, Donibane-Lohitzun).

Aldaketak: 1/3:pentsamendu; 2/7: eta zuri idu-
ritu; 2/9: hobiaguarekin; 3/1-2: Itxasoalat juaiten
dira — mariñelak untziko; 3/6: algarreki; 3/7:Be-
hin maitatu zaitut eta; 3/9: sartu zitzaitat; 4/1-2:
Primaberan zuñen eder den — fruta berria kanpua;
4/3: banabilazu; 4/7: ni xangrinetan; 4/8: konsola
zaite gogoan.

Chaho'k ekartzen du beste bertso bat. Ona emen:

Maiatzian zoin den eder
xoria kantuz pagoan,
amodioak niabilazu,
maitia, zure ondoan;
xarmagarria, ez bazira
tronpatu amodioan,
maitatu zaitut eta
ez naiz ganbiatuko,
biotzian sartu zerazkit
eternitate guziko.

Bi esku agertzen dira Chaho'ren idazki ontan: bere eskuz eginak ditu 1, 2 eta emen ekartzen dugun au; beste biak beste esku batek geroago idatziak dira.

II.—*J. B. Salaberry* (1870), 200'gn. orr.: Aldaketak: 1/3: Bost; 1/7: sendimenduiak; 1/10: sortuia zinen; 2/1: sortuia zinen; 2/3: etzaut jinen; 2/4: neure; 2/9: ni baino hobe batekila; 3/4: sekulan ez dut utziko; 3/1: bein maite izan zaitut eta; 3/9: bihotzian sartu zitzautzat; 4/3: amodiak ibili nu; 4/7: xangrin huntarik hiltzen banaiz.

III.—*Cuaderno Ferran* (Luzaide). Salaberry bezala.

IV.—*Aita Donostiaren bertso-bilduma*: Argentina-tik artutako kuaderno batean (Lekaroz): Bostgarren bertsoa hemen bertze nehon ez dugu arkitu. Bertsoak, era ontan lekuz aldatuak daude: 2, 3, 1, 4 ta 5'garrena.

Aldaketak: 1/4: zurekin egon beharrez; 1/9: ni xangrinetan; 1/10: sortua zinen; 2/5: nahi zintudan; 2/7: eta zuri ez iduritzen; 3/4: sekulan ez dut utziko; 4/1: primaderian zoin den eder; 4/2: kanpuan; 4/5: xarmegarria etzaitut nahi; 4/7: ni xangrinez; 4/9-10: maluroski aski banuzu — bakarrik nihaur munduan.

V.—*Urdazubi'ko Jose Agirre Jaunaren kuadernoa*. Central bateko guarda zen, eta denbora pasatzeko

bertso-bilduma bat egin zuan, zenbait kuaderno berterik:

Aldaketak: 1/4: egon beharrez; 1/7: pentsamenduiez; 2/7: iduritzen; 2/9:hobexago batekin; 3/1-2: Primaderian joaiten dira — mariñelak untziko; 3/4: sekulan ez dut utziko; 4/1: zoin eder den; 4/3: ibili nau; 4/7: ni xangrin huntarik hiltzen banaiz.

Bertsoen azpian izen au dakar: Geiahardi Jn. Bta.

VI.—Beste iturri batzuek:

A. Goienetxe: "Eskualdun Kantaria", 37'gn. orr.

A. Onaindia: "Milla Euskal Olerki Eder", 80'gn. orr.

"Kantuz", 116'gn. orr.

"Xaramela", 71'gn. orr.

J. M. Satrustegui: "Anotaciones a la obra literaria de Bordel a través del testimonio popular", B. A. P., 1962, p. 241.

IKUSTERA JITEN NITZAIZU

Luzaideko kantari xaharrak, —Jainkoak goyan ditzala—, beste berri jakingarri bat salatu zidaten: “*Ardandegiko kantiak*” ere,, alegia Pudesenak direla. Beraz, bi pilare ederrren gainian finkatia dugu gorputz gabeko Pudesen izena.

Zer eta, Ardandegiko kantiak! Erriko etxalderik oberenetakoa da Ardandegia. Elizako ondoan, plazaren erdian, itzal aundiko etxea; merexituak zituen ain bertsu ederrak!

Bi gazte maite-solasetan, kantuan direnak. Elgar-izketa bizi, ezti, eta errespetu aundi-koan emanak dira puntuak. Olerki bat da.

Anitzetan entzunak nituen Luzaiden bertsu auek; baña erdizka bakarrik. Arnegitik ukanak ditut eskas zirenak. Ez dakit bertsu bilduma zonbaitetan argitaratuak dazteken. Nik

ez ditut ikusi. Konten nintzan kantuarekin batera egilearen izena ukaitez.

Luzaideko izenaren orde, —Arnegiko papperrak ere “Arandegiko kantia” erraiten dako—, “*Ikustera jiten nitzaizu*” izendatuko dugu. Suyeta obeki adierazten du, atxikitzeko errexago da, eta lenbiziko bertsuaren astapena.

I-kus-te-ra yi-ten ni-tza-i-zu no-
 -lazi-ra-de mat-ti-a bi-zi lu-ze bat de-
 -si-de-rai-zut do-ain o-ro-rez be-ti-a
 o-ri-ek o-ro a-la di-re-la Pa-
 -ra-di-su-an sar-tzi-a Pa-ra-di-su-an
 sar-tzi-a

- 1/ Ikustera jiten nitzaizu,
Nola zirade, maitia?
Bizi luze bat desideraizut
Doain ororez betia;
Oriek oro ala direla
Parabisuan sartzia. (bis)
- 2/ Eskerrik aski, adiskidia;
Ongi etorri zirela!
Mihiak bezain bihotzak balu
Orren promesa fidela...!
Oriek oro denborarekin
Egiak gerta ditela. (bis)
- 3/ Ene maitia, ikusazu
Kanpoan gaizki nagola;
Eskuño batez tira nezazu
Zure ganbaran barnera:
Segetuan nahi daizut
Kondatu neure manera. (bis)
- 4/ Zuri eskuaren emaiteko
Kurairikan ez dut nik;
Egundaino ene ganbaran
Ez da fidatu gizonik,
Fidatu diren gaixuendako
Berri gaistuak entzunik. (bis)

- 5/ Fida zaitezke, ene maitia,
Gogua laxo utzirik;
Proposatzen baderaizut
Zure goguan ez denik
Jainkoak ez dezaidala eman
Oren baten bizirik
(ez pausu baten biderik).
- 6/ Maitia, mintzo zira
Eztiki eta oneski;
Balin banaki ez duzula
Nehon beste maiterik
Zuri fediarene emaitiaz
Nik enikezi dudarik. (*bis*)
- 7/ Ene maitia ikusazu
Fidel naizela mintzatzen;
Goguan ez duten promesik
Nik ez dut nehorik emaiten:
Ene bihotzak ez du munduan
Zutaz besterik maitatzen. (*bis*)
- 8/ Ene maitia, fidatzeko
Anitzetarik dut aditzen;
Eni promesak eman eta
Besteri duzu maitatzen.
Amodiuak anitz iñorant
Munduan dizi tronpatzen;
(uros, ez dena fidatzen.)

9/ Zuria, zuri; gorria, gorri...:
Xarmengarria zirade!
Biar berian jar banindadi
Bi erresumaren jabe,
Oriek oro deus elitaizke,
Xarmengarria, zu gabe. (*bis*)

Ikus: J. M. Satrustegui. "Ikuskera jiten nitzaizu",
B. A. P., 1962; p. 247.

Azkue: *Cancionero Vasco*, 80: Bi bertso, lenengoa
ta 9'garrena, era ontan:

Zure ikustera hemen eldu naiz,
nola ziraden maitia,
bizitze on bat opa dereitzut,
dohain orotaz bethea,
eta ondoren hiltzen zelarik
Paradisuan asrtzea. (*bis*)

Xurian xuri, gorrian gorri,
zoragarria zirade,
Lipar batean in al badaike
bi erresomaren jabe,
hoiek guziak deus elizazke,
maite biotza, zu gabe. (*bis*)

NAPOLEONEN BERTSUAK

“Boryel” bertsulariaz mintzatzean aipatzen genituen bertsu auk. Berak eginak dira. Bakarik, zortzi bertsu baizik ez genituen ezagutzen ordian. Juan Cruz’ek zionez, gazte denboran ikasiak zituen eta emeretzi bertsu izan behar zuten. (1)

Orai ekartzen ditugunak, egilearen billobak berak bialduak dazkit. “Arjentinatik jin zeraut kahier bat —dio—, 1929’an gure anaia zenak iskiatia eta hartarik kopiatu ditut Napoleonen kantu auk...”

“Hauek dira horainoko osoenik muntatu dituanak eta ez dut espero nehondik gehiago. Anitz enseatu niz eta letra frango igorri, bana debalde.”

Nola nahi dela, ez diten galdu, berriz emaiten ditugu. Amabost bertsu dira aldi ontan: Napoleon III’garrenari buruz emanak dira eta 1870’an egin zituen Bordelek.

(1) J. M. Satrustegui. “Bordel Bertsularia”. Auspoa, 45-46; 162’gn. orrian.

- 1/ Oraintxe asia niz
Kantuen moldatzen
Ikusi dutanian
Sujeta nola zen;
Nonbait ez bada gerla
Ez da konsolatzen,
Frantzesia ibili da
Bertzen eskolatzen.
- 2/ Oro zerratzen ditut
Itz baten barnian,
Oraiko sujeta da
Frantzesen gainian,
Beren artian omen ziren
Desunionian
Uste gabeko gerla
Galdu dutenian.
- 3/ Napoleon nola den
Apalki eroria
Frantzia lagundu duen
Enperadorea!
Malurra malur dela
Nun da ohoria?
Abandonatu dute
Beren faboria.

4/ Napoleon jua del
Frantziatik kanpo!
Hari eman dakote
Estakuria frango;
Nausi atera balitz
Prusia'rendako,
Etzuten, ez, guziek
Abandonatuko.

5/ Napoleon jua del
Dударikan ezta:
Noiz arte juana ote da
Gure Presidenta?
Pentsaketa egiteko
Tenoria baita
Zer irabazi duten
Hura galdu eta.

6/ Napoleon beldurrez
Emigratu dena,
Gisa hortan duanak
Badu aski pena;
Gizon abila eta
Justua ere lehena,
Olaxe pagatzen da
Zuzen dabilena.

7/ Enbidiari penak
Horra zer darion
Zori gaistoagorik
Ez ahal da nihon;
Egia erran gabe ni
Ez naiteke egon:
Berek obligaturik
Juan da Napoleon.

8/ Inbidiarik baizik
Ez dugu aditzen,
Fama frantsesen eta
Bitoria bertzen;
Bazainen parekorik
Nihun ere etzen,
Bere armadarekin
Galdu dute Metz'en.

9/ Jaun ohoratua zen
Bazaine jenerala,
Zeruan eta lurrean
Hala izan daiela.
Frantsesen jeloskua
Etzela, ez, hala;
Nola entregatu zen
Plazan berehala!

10/ Opinionia du
Bakoitxak beria!
Gisa hortan galtzeko
Enperadorea,
Bertzetan ere bazen
Zerbait larderia,
Entregatu zelarik
Frantses armeria!

11/ Arma eta gizonak
Dira entregatu,
Uroski ez bai dira
Guziak suntsitu!
Paris'en ez dutela
Hori ontsa artu!
Zendako ez dituzte
Berek sokorritu?

12/ Entregatu zenian
Bazaine hori Metz'en
Naski bertzetan ere
Lanik aski bazen;
Gizon aundia frango
Bazela Paris'en
Bainan balentriagorik
Ez dugu aditzen.

13/ Nonbait zori gaitzeko
Frantziako gerla!
Segur niz fama hori
Barreatua dela!
Beti bera dabila
Kontrario bila
Ez iduri bertzetan
Gizonik badela.

14/ Bataila guzietan
Gizonak aitzina,
Nazionia triste
Oi, zer atsegina!
Betidanik Frantzia
Jendez irakina,
Halare ezin forni
Prusiaren dina.

15/ Frantziak hobe luke
Bakean gelditu,
Sinetsi nahi badu
Abisak baditu.
Egundaino ez dugu
Bertzerik aditu,
Zonbaiten maleziak
Oro galtzen ditu.

J. M. Satrustegui: "Bordel Bertsularia", Auspoa, 45-46, 164'gn. orria. Zortzi bertsu ziren an ezarriak, bainan era ontan lekuz aldatuak: 4, 5, 3, 8, 10, 11, 12, ta 6'garrena. Aldaketak ikusi Auspoa'ko aipatu dugun liburuan.

PREOTTOAREN MUTILA

Jacques, bearnesa, Luzaideko “Bordelian” zen mutil. Fama zen Preottoainean etzutela mutilak anitz irauten. Etzitzakon bearnesari iduri ain gogorra izaiten ahal zela Azoletako bizia; eta ogei duro apustu eginik. —ixpixu erraiten dute Luzaiden—, joan zen urte batendako Preottuain etxera mutil. Urtea bete gabe ateratzen balin bazen galdua zuen dirua; eta egonez, beretako dena.

Erran bear da, etxeko seme zaharrena zuela kontrario eta atera behartu zitzakola denbora bano lehen.

Huarte’ko Goyenetxe izan behar zuen beretsu auen egilea:

1/ Bertsu berri batzuen
Nua kantatzera
Publikatzeko neure
Bizitzeko manera;
Beti mutil nabila
Batetik bertzera
Zazpi urte ba ditut
Jinik Luzaidera.

2/ Luzaiden niz geroztik
Ongi laketua,
Etorkia frantsesa
Bearne'n sortua,
Bordelian dut neure
Gustuko lekua;
Kanbio atzeman dut
Andik landakua!

3/ An ongi nintzelarik
Ateratu nintzen
Zehait falta nuela
Zaitan iduritzen;
Ogi bihiko xoria
Eneatu bai zen,
Ene gostuz geroztik
Ikasi dut bizitzen.

4/ Jalgi nintzan nihaur
Astelehenian
Bai eta plazatu
Toki tzarrian;
Bakotxak konsidera
Ene adinian
Zer egin diren gizonak
Holako moldian.

5/ Molde zarretan naute
Erabil-arazi,
Nahi nindutelakotz
Biper joanarazi;
.....
.....
.....
.....

6/ Holakorik bazela
Ez bainuen uste
Ogei duro jokatzera
Enganatu naute.
Mutil naizela ba-tu
Ogei ta zonbait urte
Biperrik ez dut egin
Nihun orai arte.

7/ Goizian goizik eta
Berant arratsetan,
Otorduak sekulan ez
Beren tenoretan;
Anitz aldiz barurik
Amar orenetan,
Holako bizimodu
Nuen Azoletan.

8/ Bizimodu oietan
Ez da misterio
Ezin egon ahal baniz
Tenore artio;
Enintzela egonen
eginez pario,
Etxeko premu nuen
Baño kontrario.

9/ Etxeko premu eta
Lagun beste biga,
Ordukotz hina zuten
Geroko segida;
Biper joanen nintzala
Aisa ziren fida
Ezin jasana baita
Etxian partida.

10/ Manezen bi lagunak
Beñat eta Arman
Huntsa atzeman ninduten
Ostatutik landa;
Ene ehun libera
Diuzte ereman
Obra hortaz ez dira
Goratuko faman.

11/ Armani egin nion
Umilki galdia
Dirua turna zezan
Bakotxari beria;
Gaizki artu ninduen,
—Haren larderia!—
Etxera joan nindadin
Bai, zalu zalia.

12/ Ni etxera joan nintzan
Hek diruak e kendu;
Ongi egin badute
Guzier barkamendu
Jainkoa egun batez
Oroit izanen du:
Gaizki eginez geroz
Eman behar kondu!

URZO XURI POLLIT BAT

Ez dakigu nori buruz emanak diren bertsu auek, ez eta ere egileren izenik. Amar gaztek eginak direla diote. Alare, baño zateken bertsularia, eta bertsulari pollita.

Bertze anitzetan bezala Bordelako Juan Cruz'en izena aipatu beharra dugu emen ere. Berak bialduak bai dira. Milesker.

1/ Urzo xuri pollit bat
Bazen herri huntan
Aita amak utzirik
Juan zen airetan;
Pare gabia bai zen
Bere lagunetan,
Ihiztariak zuen
Atzeman saretan.

- 2/ Urzo xuri pollita
Kaiolan eritu,
Eta ehiztaria
Tristezian sartu;
Gaitza berri zueno
Nahi zuen saldu
Erostuna tontua
Arrapatu balu.
- 3/ Aita ama gaixuek
Ez bide zakiten
Ihiztari zaharrak
Zer zuen egiten,
Urzuak zituela
Kaiolara biltzen
Eta an inozentez
Ongi baliatzen.
- 4/ Ihiztari zaharra
Gaizki usatua
Etzauzu baliatu
Aurtengo tratua;
Gogotik saltzen zinuen
Urzo kolpatua
Izan balitz mundua
Arras lokartua.

5/ Azkenian urzoa
Zer bilakatu den
Aitormena egizu
Norat jua zinuen;
Aita amak nigarrez
Daude orai emen
Beren ume gaixua
Ez jakinez nun den.

6/ Barkamendu galdeizu
Zeruko Jinkuari
Eta haren ondotik
Zeure esposari;
Hura ere ardura
Nigarrez da ari
Begiratzuk eman
Des-ohoriari.

ANTTON ETA MARIA



- 1/ Bertsu berri batzuen
Noa emaitera,
Banka hortan suietak
Ardura baitira:
Antton eta Maria
Xangrinetan dira
Uste gabe gaixoak
Tronpatu baitira
Elgarri soberaxko
Konfidatu dira.
- 2/ Maiatzaren leheneko
Larunbat atsian
Gertatu ixtoria
Bankako herrian;
Antton eta Maria
Bai ziren ordian
Amodioz berdinak
Elgarren artian,
Obra berriño hori
Agertu artian.
- 3/ Etorri zaionean
Gizona etxera
Nola gertatua zen
Orduko afera:
"Agur Antton! Heldu niz
Zure ikustera;
Aita baten izena
Bai zoaz artzera.
Zure semea barda
Sortu da mundura."

4/ Anttonek errepostu
Kopeta gorarik:
"Ez dut arrangurarik,
Libro niz hortarik.
Bi urte pasatuak
Ba ditu jadanik
Ez duala harekin
Ele bat eginik;
Jainkoak bano gehiago
Nik ez dut hobenik."

5/ Antton gogoetan zen
Arrazoinekilan
Zer egin behar zuen
Neska horrekilan
Karkulak egin ditu
Etxian andrekilan:
"Abil ele xuritzera
Gizon batekilan
Manexeneko Zimon
Artu eurekilan.

6/ Antton hori badua
Arturik gizona
Aferen xuritzera
Partidarengana:
Zer komisionia
Hik gaizki egin badun
Igorri dudana!
Nik duta obena?
Komisioniak igorzkin
Partzuer heiengana.

7/ Partzuerren ez diat nik
Deusik erraiteko,
Bainan ditudan guziak
Orai iretako;
Hik badukak tupeta
Horren erraiteko?
Orai ez nuk trenpian
Mokoka artzeko,
Haur hori tokatzen duk
Hire ta enetako.

8/ Antton etzazula egin
Odol gaixtorikan
Ola pasatua da
Orai engotikan. (1)
Hortarik ez ditake
Egin bertzerikan;
Entzutia badut nik
Zaharretarikan,
Surik ez den lekutik
Ez dela kerikan.

9/ Urrikalgarri dira
Olako presunak,
Berek ezin goberna
Beren ontasunak.
Hori ez du egiten
Amodio finak;
Elgarri fida bite
Konbeni direnak,
Azkenian hori du
Malezian denak.

(1) Puntu au, "Euskal Erriko Kanta Zarrak" deitu liburuxkan arkitu dugu; ez bertzetan.

10/ Amar bertsu eman ditut
 Orok kantatzeko,
 Kasu hortan direnak
 Etsenplu artzeko.
 Otoitz egin dezagun
 Holakuendako;
 Ar dezaten xede bat
 Ez berriz egiteko,
 Kalte aundia baita
 Arimarendako.

J. C. Arrosagaray. Ezagutzen ditugun paperretan, Juan Cruz'ena da osoena. Asieran dio: "Pierre Harignordoqui, Baygorri'koak eginak. Airea: "Bordel'en Paluen kantuen".

Aipatuak dira Luzaiden bertsu auek.

Aldaketak: 2/7: amodioz aurrintak; 3/8: baitzoazi; 4/4: Nik ez dut aferarik; 6/6 Igorri dun ni gana; 6/10: partzuerren gana.

Amargarren bertsa ez da kantatzen Luzaiden. Californiatik bialdu digu Juan Cruz Bordelekoak.

"*Euskal Erriko Kanta Zarrak*", Tomo III: 1/1: batzuen; 1/7: ustekabian; 2/3: istorioa; 2/6: baitziren bakian; 2/7-8: amodioz obra inta batziren orduan; 2/9: obre berri oriel; 3/1zitzaionean; 3/3: nola pasatu zen; 3/9: zure semea bada; 4/7-8: arekin ez dudala elerik egin nik; 5/1: Anton gogoeta zagus; 5/4: arrekilan; 5/10: artzak aurekilan; 6/1: Anton ori eldu da; 6/5-6: zer komisione baitan ekarri nigana; 6/9: igortzin; 6/10: plasor oien gana; 7/1: Plasor ointzat ez diat; 7/3-4: bakarrik ditudanak denak iretako; 7/5: ik baduka kopeta; 7/7: orai ez bainu trenpean; 8/3: berek ezin arraña; 8/5: ez du ori egiten; 8/7: elkarri bear giten; 9/9: frankotan aditu dut; 10/4: ejenplu; 10/6: alakoendako; 10/7-8: ar dezagun xedia ihes egiteko; 10/10: animarendako.

BANKAKO LAU ANDERE

Auzo herritako gauzak ere bertsutan or dira. Banka ta Luzaide anai arrebak bezala dira biak. Mendiz dute beren bidea. Edo gauaz.

Bertsu auek 1915'ean, Europako gerlakoan ezarriak dira. Lau emaztek behar etziren solasak atera bazituzten, ez ba zituzten, bertsulariak inharrosi aldi bat emaiten die. Egilea nor den ez dakigu.

Airea: "Antton eta Maria xangrinatzen dira..."

1/ Naiz ez den jendia
Hanbat alegera
Alere zombait bertsu
Nua emaitera;
Suyeta frango bada
Famen arabera
Zuzen publikatzia
Ez baita sobera
Orok entzun dezaten
Bankako manera.

2/ Banka hortan lau andre
Beti elhe biltzen
Aspaldian asiak
Ez dira gelditzen;
Laket zaie onester
Ohore ttipitzen,
Medisentzia, kaluniak
Ez ditu izitzen
Oro aizu direla
Bai zaie iduritzen.

3/ Bi presuna gaztentzat
Ez dakit noizdanik
Nahaskeria batzu
Bazuzten eginik,
Kantu zar batzu ere
Heientzat emanik,
Eta neska gaixuek
Etzuten obenik,
Berek merexiago
Zuketen lehenik.

4/ Bertzer eman bertsuak
Ona emen berenak!
Partidak bilatzen tu
Xerka dabilenak.
Inozententzat horiek
Zer lagun fidelak
Gezurrez emaiteko
Holako eskandalak;
Ezagun da ez ditu
Hunkitiak gerlak.

5/ Predikatzen du maiz
Bankako artzainak
Uzteko medisentzia
Eta eskandalak,
Zuzentzeko berehala
Gezurrez erranak;
Bainan tropan direnian
Holako kabalak
Nehork ezin zerraraz
Heien ago zabalak.

6/ Horiek ama alabak
Eta bertze biak
Kozina egiten akort
Dirade guziak.
Bordan ikusi zuzten
Desmartxa itsusiak,
Gero jin direnian
Elhe xuritzia
Erranak oro uka
Garbi konzientziak

7/ Gauzaik errexena da
Hola ukatzia
Bainan ez berriz elhe
Gaixtoen biltzia;
Jainkua imposible
Baita tronpatzia
Batzuen ala bertzen
Denen tenoria
Zor dute neska horier
Kendu ohoria.

8/ Ohoria nork berak
Begira oneski
Eta bertzena ere
Ez erabil gaizki;
Andreak behar lukete
Bakia atxiki
Noiz nahi ere, bainan,
Orai partikularzki
Gerla gizonendako
Balitake aski.

**KANTORE BERRIÑUAK
ONDARROLA'KO URZO BATEN
GAINIAN**

1/ Milla zortzi eun irur
Ogoi emeretzi,
Kantore berriñuak
Naiz formatzen asi;
Badela zeren gainean
Dudanian ikusi,
Kasu untan denari
Etzaio itsusi.

2/ Suieta gertatu da
Eskual-errian,
Ondarrola deitzen den
Kuartier batian;
Urzo bat zagoena
Bere urzotegian,
Kolpatu izan dute
Pensatu gabian.

3/ Urzo kolomañua
Ez daite konsola,
Ihiztari abilak
Beti badirela;
Batek bano geiago
Tiratzen zutela,
Eztakiela zoinek duen
Polsu prinzipala.

4/ Ihiztarien besta
Zen paregabia,
Multzua zirelakotz
Beti komedia;
Egun batez yokatu
Zuten berendia,
Zoin lehen urzotegira
Eginik apostia.

5/ Amodio fidelak
Parerik ezpaitu,
Batek beriañuez
Zuen zerbitzatu;
Presenta biotz unez
Zuen errezibitu,
Bertzeño batendako
Zituen beiratu.

- 6/ Ikusi zuenian
Armaz unkituta,
Kolpia lanyeroski
Barnea sartua,
Gaixua gelditu da
Xangrinez urtua,
Deklaratu gaberik
Bere segeretua.
- 7/ Bakarrik izan balitz
Lan unen ilia,
Ordian banakien nola
Egin justizia;
Parzuerrak bazirela
Dudarik gabia,
Etzakin zeini yoka,
Zer inorantzia!
- 8/ Ihiztaririk bazela
Ez nuen uste nik,
Ene egala tiruaz
Ausiren zuenik;
Sobera konfidantxa
Banuen emanik,
Azkenian tiratu
Aski urrandanik.

- 9/ **Gaztedanik banuen
Beti fantasia,
Bertute bat nuela
Parerik gabia,
Bat bano gehiagori
Kontra-egilia;
Irabazi izan banu
Zer bozkalentzia!**
- 10/ **Konseilu emaiten dut
Urzo laguneri
Ez ditezela fida
Ihiztarieri,
Partikulazki gaubaz
Tiratzen duenari,
Zoinek tiratzen duen
Ez dela ageri.**
- 11/ **Zonbaitek inen dute
Irri beren baitan,
Gaitz untarikan libro
Direla aldi untan;
Abilak enganatzen
Dira mundu untan,
Ez ditezela sartu
Sobera urgulutan.**

12/ Amabi pertsu ditut
Berriak formatu,
Ene afizionia
Ez dirot ukatu;
Izan dudan abisa
Dudanian konplitu,
Deusetan aitzinago
Eztut nahi sartu.

Luzaideko Karrikaburua'n bildutako esku-idatzi
batean. Oar au dakar: "Copia de Pedro Lizarraga
y Camino. Año de 1881. Valcarlos. Carricaburua".

BAYGORRIKO URZOA

Baygorriko suyeta gazten arteko suyet le-
rrakorra dugu. Gertatzen diren gauzak. Amo-
rante solasa ihiztari eta urzoñoaren itzal-
pean emana da. Lekuko josteta urri denbo-
ran.

Suyeta salu, ez da gaizki kantua. Egilea-
ren berririk ez dugu. Halakotan gertatzen den
bezala, eliztiarra zela erraiten zaigu. Betiko
solasa.

1/ Urtzo xuri polita
Baygorrin sortua
Urgulutan ginuen
Gaixua sartua;
Abilki nahi zuen
Tronpatu mundua
Bainan bera da
Ongi tronpatua.

2/ Urtzo xuri pollita
Xarmegarria zen,
Haren parerik etzen
Bertzerik agertzen;
Birjina bat iduri
Beti elizan zen,
Kolperik bazuela
Nork zuen pentsatzen?

3/ Urtzoaren bizia
Elizan zen dena
Nunahi otoitzean
Auspez zen emana;
Hura zaukaten orok
Saindu aundiena
Galdu izan ez balu
Hegal petik luma.

4/ Bihotzetik bazuen
Beti norbait maite
Denbora luzaz elgar
Atxiki baitute
Tronpatuko zutela
Ez baitzuen uste,
Bainan ihiztariek
Atzeman daukute.

5/ Maite bat izan eta
Bertzeari fidatu,
Harek dauku gaixua
Munduan tronpatu;
Bakotxak bere lumak
Beiratzen ez baitu
Ihiztariak urbil
Beti izanen ditu.

6/ Ihiztari abilak
Badira mundian
Eta partikularzki
Baygorri aldian;
Urtzo xuri pollita
Atxeman dutenian,
Sareak edaturik
Zauden aspaldian.

7/ Urtzo gaixuak fite
Ihes egin balu
Etzuten, ez, saretan
Aise behar bildu;
Bainan inozenta zen,
Harek dauku galdu;
Bertzenaz bere luma
Behar zuen zaindu.

- 8/ Nigar egiten zuen
Bihotzetik zinez
Aspaldian baizegon
Barnetikan minez;
Bere maitia utzîk
Bertzeekin egonez,
Ara zer gertatzen den
Kasurik ez hinez.
- 9/ Otoitz egiten zuen
Zinez Jainkoari
Bihotzez egoiteko
Bere maiteari;
Bainan beti badira
Zonbait ihiztari
Inozente direnez
Beti baliatu nahi.
- 10/ Bainan urrikaldu zau
Ihiztari jauna
Diruz estali dauku
Egin duen lana;
Gaizki ibilia zen
Urzoarengana
Etxian zuelarik
Bere espos laguna.

11/ Urzo xuri polita
Eta loriosa
Oraino gelditzen da
Gaixua urosa;
Beti nagusi baita
Mundian bihotza,
Azkenian diruak
Egin du ezkontza.

12/ Fortuna eginen du
Gaixuak agian
Uroski bizitzeko
Bere familian;
Fidel egon ditela
Elgarren artian
Berriz tronpatu gabe
Bigarren aldian.

13/ Nor daukatan suyetan
Ez dut izendatzen
Gauza hori ez bai zaut
Eni konbenitzen;
Orendako ez baitut
Ausartziaik artzen
Nahiz tutan guziak
Baygorrin ezagutzen

14/ Etsenplu bat nahi dut
Eman guzieri
Eta partikularzki
Jende gaztieri;
Zuhur balin bagira
Gida giten ongi
Gure Jainko jaunaren
Legia da hori.

“Baygorriko Urzoa” Aita Donostiaren makinaz idatzitako orri batzutan ere badator. Lau bertso dira, bainan era ontan lekuz aldatuak: 6, 2, 3, eta laugarren tokian beste berri bat.

Aldaketak: 2/4: munduan ikusten; 3/4: ahuspez emana.

6^{gna.}:

Ihiztari abilik badugu munduian,
eta partikulazki Baygorri herrian;
urzo gaixoa dute atzeman mendian,
sariak edatuak zeuden aspaldian.

Berria:

Iragan egunetan segeturekin
landa xokotan zauden beren artzainekin;
artzainak joan eta ez jakin zer egin,
halare urus dire bildotsik ez den jin.

AGERREKO BAZIL

Luzaideko ondar koplaria Basilio Echeverría, Agerreko semea izan da. Bere denboran ixtorio eta gertaera ttipiz herria bete duen gizona. 1879'an sortu zen, Urtarrillaren 15'an.

Bertsu paperretako errextasun aundia bezala, gogo ttipia zuen laneko. Bidondo xaharrak erran zakon:

—Alfer egoiteko, alferra behaixi izan gizona!

Eta berak orduan:

—Hortarik banikexi, enia eta biona!

Bazil aipatua zen Luzaiden. Gauaz sorginak nunbait bazabiltzala entzun orduko, Bazilen jokoak ez ote ziren jakin behar lehenik! Bildurtiak nun ziren jakinik, behin bano gehiagotan aterara izan behar zuen bidetan. Hilarritako argi eta, etxe ingurutako azantzen berri ere bazekien... huntsa.

Kantu anitz badu Agerreko semeak; ez denak baliosak.

Bertsu bezala, aberastasun guti. Suyet delikatiak hunkitzen dituelarik, finezia nunbait ahantzia. Ez dira zonbait bertsu belarri guziendako eginak. Kasik ez dira aipu Luzaiden.

Guk ez ditugu emen bere kantu guziak emaiten ahal. Anitzak berri dira eta, jendeak bizi; beste anitz, arruntak direlako.

Xinta-minta guziendako bertsuak bazituen. Agintari eta emakume solas; zahar nola gazte; aza edo arbi, bazuen beti zerbait. Ori bai; mina emaiteko ziren bere lerroak.

Suyet mota guziak ibiltzen ditu. 1946'an, Arneguy'ko fronteraz mintzo zaigu, 4'gn. eta 5'gn. bertsoan dio:

“Frontera triste hunek
Zer erran ez duke,
Ez gaizke bizi, ez aisa
Eta ez neke.
Elgarrekilan samur,
Sekulan ezin lake,
Tema hoitan girela
Badu zonbait urte.

Urte horiek ez baidira
Ez bat, ez biga:
Dozenaño batetara
Ailegatzen gira.
Zer ikusi behar den
Sekulan ezin fida
Baldin eta laburxki
hiltzen ez bagira.

1910'gn. urteko azaroaren 17'an, Isabel Arroqui, Iriberneko alabarekin esposatu zen. Bera baino lehen hil, eta anitz urtez alargun bizitu zen. Bere ondar urteak itsu eginak ditu munduan.

Eriotza, 1954'ko abenduaren 16'an jin zitzaion. Iturburuan bizi zen ordukotz, bere anai batekin.

ESKOL ETXEKO LANAK

Luzaiden Ayundamenduko etxea egin zeneko bertsuak. Neke aundiko lanak izan ziren. Ez omen zuten zimendurik arrapatzen ahal, eta egurren gainean egitera behartuak izan ziren, azkenean. Ehun mila peseta, diru meta aundia zen denbora artako. 1919'an eginak zituzken bertsu auek Agerreko Bazilek:

- 1/ Pertsu berri emaitera
Orai naiz abian
Luzaideko suyet berriak
Ikusi ditutanean;
Fama hori barreatu da
Gure eskualdian:
Obra berri bat egin dutela
Zor aundi bat erdian.

2/ Arras akabatu gabe
Ez delarik erori,
Kontratistak joan artio
Xutik egon baladi!!!
Solas hori entzuna nuen
Joandeneko aspaldi,
Erortzeko aski duela
Zonbait aize ukaldi.

3/ Obra hori gostaia da
Ehun mila libera;
Gisa hortan egiteko
Erdiz erdi, sobera.
Konprenitzen direnetan
Badirela minbera,
Aintzina're izan daike
Hortaz zerbait kimera.

4/ Erriko ofizialek
Badituzte estakuliak,
Kontratistek zarri diuzte
Garbi beren buriak,
Bertzen buztanez aisago
Kentzen diuzte huliak
Horien hobenen jasaitera
Guziak obligatiak.

- 5/ Kontratistek budutela
Mintzatzeko bertute
Sinets daike, berek
ala erakutsi bai dute;
Herri huntan izan balitz
Gizonikan alkate
Errespetu geixago
Ezarri behar lukete.
- 6/ Oraikotik famatu da
Luzaideko herria;
Nahi nuke jakin nor den
Hango buruzagia!
Herri horren gidatzeko
Omen du nahikaria...
Sekulakotz maluros laizke
Ez balezate kanbia.
- 7/ Herriko sosak joan dira
Obra horren gainian,
Eta orai aterberik ez
Eurian hasten denian!
Ardi borda obexagorik
Uste dut baden mendian,
Hortan sartu behar balute
Trenpa laizke eurian.

8/ Ofizialiak asi dira
Orai pareta zartatzen,
Entzun dut lan horrek
Asi dituela lotsatzen;
Zilo bakoitxa erregu batez
Ez bide dute tapatzen,
Suyet horren publikatzeko
Asia niz kantatzen.

9/ Adios, beraz, Luzaide
Eta ango buruzagia,
Ziengatik nahi dutena
In dute eskol etxiaz.
Garbi aski deklaratu du
Ofiziale nausiak
Deusik eztela alkatia
Eta igual zinahuzia.

HERRIKO ZORRAK

Len ariek gaizki ikusi zituenak, etzituen kargak begi onez ikusten ahal. 1920'koak dira "Herriko zorren" kantiak.

- 1/ Mila bederatzi ehun eta
Hogoigarren urtea
Ilabete batekin
Da abantxu betea;
Jaunak eman balezauku
Azkar izpiritua
Suyeten publikatzeko
Har genio gustua.

- 2/ Urrundanik izan ditut
Luzaideko berriak,
Tristezian daudela
Gaixo laborariak;
Eztakite nola paga
Herriko obligazioniak
Zeren ta egin baituzte
Afer-gastu aundiak.

3/ Afer-gastu egiteko
Batuztela ordenak,
Bertzez azkar bide dira
Gobernuko gizonak;
Zoinek guhaurek ezin goza
Guhauren ontasunak,
Hortarikan bizi behar
Afer dauden gizonak.

4/ Afer dauden presunak
Zonbat ote dira?
Luzaiden partikularzki
Baten plazan biga;
Hortakotz laborariak
Neke haundian gira,
Urtian lau duro egin eta
Horientzat behar biga.

5/ Iten diren erdiak
Ez dira aski aferren;
Nik ez dakit herri ontan
Nola bizi giren...
Lehenagoko gizonak
Baginaki nun diren,
Ahal balira hek ekarri
Xuxentzera aferen!!!

6/ Lehenagoko gizonak
Bizi ziren urtetan
Luzaide ez da izan
Holako eskarmentutan;
Halakorik orai ez da
Herriko abitantetan:
Oraikuek ezarri giuzte
Sekulakotz errekan.

7/ Sekulakotz neketan
Zarri giuzte gizonak
Nahi banitu deklaratu
Banazkike izenak;
Iduri'uzte in duztela
Sekulako fortunak,
Lehen buruzagi eta
Gainerako beintanak.

8/ Gainerako beintanak eta
Kontseiluko gizonak,
Ikusiazîk nola giren
Ezin biziz jarriak
Gobernutik heldu diela
Beti odre berriak
Zonbait urtez hautemain du
Luzaideko herriak.

9/ Luzaideko herriak
Emen nago entzunik
Aspaldian ez duela
Konseiluko gizonik;
Bederatzi ilabete
Man tuztela osorik
Ez dute berexten ahal
Obra horren tokirik.

10/ Obra horren tokia
Berexi eta onduan
Gaizki atera omen dira
Beren tratamenduan;
Lehenago behar zuten
Miratu zimenduan,
Guziendako bentaja
Izain zen pagamenduan.

11/ Pagamendu horren medioz
Herria da erori,
Ni enaite konsola
Erran gabe nehoi;
Ameka bide dira
Obra horren iuiari
Gainerako zonbait
Ez da horientzat egarri.

12/ Nundik atera ote dira
Obra horren egiliak?
Kanpotiarrez nahi zuten
Egin mirakuliak;
Sartu izan balira
Herriko ofizialiak
Egitetik egitera
Oi zer diferentzia!!!

13/ Diferentziarekin da
Ofiziale segurra
Ez dakienak beti badu
Gaizki egin beldurra;
Obra horren egiteko
Behar zuten karkula
Zeren eta egin behar da
Sekulako eskola.

14/ Eskolaren obra hori
Oraikotik badua
Ikusirik badutela
Diru soberatua;
Astetikan azkar
Bide zuten depositua;
Sei libera omen dute
Diru Espaiñiakua.

15/ **Konseiluko gizonak**
Ba ditugu berriak
Bainan lengoen gisa
Ixtudiorik gabiak;
Erreprotxu eman dako
Bati buruzagiak
Zerendako hartzen
Diuzten holakuak.

16/ **Zuhaurek botua emanik**
Karguan sartu ginen
Eta orai guk ez dugu
Gusturikan eginen;
Kargu huntan sartu gabe
Bazinakin zer ginen
Firma horrek ez dakit
Zer sustanzia daramen.

18/ **Hau dut azken pertsua**
Despegida guzier,
Konseilu hau emaiten dut
Neure aditzalier:
Zonbait duro behar da
Debaldeko gastien!
Hiltzen denak utziren tu
Zor guziak bizier

(1930)

LUZAIDKO GORA-BEHERAK

Erriko-etxea da bertsutako "Eskol-etxea". Aipatuak izan ziren Luzaiden, an egindako lanak. Irugarren bertsu alde, gai ontaz. Juan Cruz Bordelekoaren ustez, bere anai Arjentinan hilak eginak dazteke. Nola nahi dela, haren cuaderno batean agertu dira.

Airea: "Luzaidko Limiten" kantuen

1/ Bi mila urtetara
Ez da falta anitz,
Hiru ogei ta amar
Tronpatzen ez baniz;
Suieten publikatzen
Orai asia niz
Luzaidko berriak
Zuzen eman nahiz,
Orai estima niro
Koblaria banintz.

2/ Duela amar urte
Guti gora-bera
Obligatu ginuzten
Legen arabera:
Real Orden garratz bat
Egina bazela,
Kondizione onetan
Ez bazen eskola,
Bertze bat egiteko
Behar zen bezala.

3/ Obra hori egin zen
Planoen arabera,
Zonbaitentzat deus ere
Ez baita sobera;
Zorrak egina-gatik
Etzuten axola,
Kargatzen dute beti
Laborari umila,
Horri zerga doble bat
Eman dakiola.

4/ Hori ahantzi gabe
Frontona makurtu,
Gure jaun inspetorra
Or zauku kexatu,
Zerbait prekauzione
Behar zela artu;
Berri bat egiteko
Zuten deliberatu,
Orduan gure zorrak
Etziren ttipitu.

- 5/ Mina sendatu gabe
Zauria ondotik,
Ez gira ateratuko
Eritasunetik.
Tronba izigarri bat
Odeiek emanik,
Bide eta zubiak
Denak errautsirik,
Orduan gelditu ginen
Deskonsolaturik.
- 6/ Deskonsolatu eta
Kuraia galdia,
Jendia gelditu zen
Pentsaketatia.
Zer balio du gure
Lanean artzia,
Pagamendutzat behar
Guk irabazia:
Deabruak xukatzen du
Gure izerdia.
- 7/ Orduan ginen denak
Herrian nahasi,
Bai eta abiatu're
Zorraren ihesi,
Batek beriak bertzer
Nahi jasanarazi,
Nork beriak baditu
Jasaiteko aski;
Gauzen arrañatzeko
Bazen lan ausarki.

- 8/ Eztanze triste hortan
Ginauden guziak,
Ez ginuen segurki
Mila alegrantzia.
Deliberatu zuten
Oihanain saltzia,
Nonbait karga ontarik
Zerbait arintzia;
Galde egin ginuen
Guk permissionia.
- 9/ Ardietsi ginuen
Permissione hori
Makurrik ez baitzuen
Egiten nehuri.
Gizonak markatzera
Zituzten igorri
Serioski egin zuten
Markazione hori;
Orduan zen oihana
Saltzera ezarri.
- 10/ Publikatu zenian
Oihana saltzera
Gizona frango bazen
Jinik ikustera;
Toki txarrian zela,
Deskontent zirela,,
Kondizioniak ere
Garratzak zuztela...
Beldur naiz elgarrekin
Konforme zirela.

11/ Antxaratu izan da
Ez behin, bietan;
Gastuak egin eta
Beti aferretan.
Erostun frango jin zen
Auto ederretan,
Presentziatu eta
Utzi gerokotan:
Ez ditake fida
Oraiko jendetan.

12/ Azkenean saldu da
Prezio apalian,
Samurtu ez balira
Elgarren artian.
Gudian asi ziren
Furia aundian
Iru nazionetako
Puxantak batian:
Ontsa pagatu dute
Ene ustez ordian.

13/ Bainan ez dugu behar
Urgulutan sartu,
Bai gure aferetan
Ongi gobernatu;
Jainkoaren legeak
Oneski beiratu,
Gure etsai guzietan
Bihotzez barkatu:
Orduan herri ontan
Bakea izain dugu

14/ Nola dugun bakea
Behar konserbatu,
Herriko populiak
Behar dugu unitu;
Norbait hasten ba zauku
Laster abisatu
Herriko aferetan
Ez dadien sartu,
Bere egitekoak
Ditzala konplitu.

15/ Errespeta ditzagun
Jaun enpleatuak,
Apez, Sekretario,
Herrien medikuak.
Elgar lagundu eta
Utzi mendekuak,
Gauza onik ez baitu
Ideia gaixtuak;
Ez dezagun ofentsa
Gure Jaungoikoa.

16/ Gomendu eman diot
Ama Birjinari,
Eskerrak bihur ditzan
Seme Dibinoari,
Zeren herri au baitu
Goraki ezarri;
Otoitz egin dezagun
Aita Aundi horri
Lehengo estatura
Ez gaiten erori.

AZKEN KARROSA

Ez nuke nehoi afronturik eman nahi Luzaideko azken karrosa hemen aipatzean. Erdal liburu bat, ni bano lehen, mintzattia da xeheki gai ontaz (1). Ez da segetu.

Ni mundura ekarri aintzinean zen; 1929'an. Iruñeko Gobernadore jaunak festari baimena ukatua zakon eta, Arnegiko plazan egitera deliberatu zen gazteria. Bertsutan ageri da nundik nora zebiltzen goiko ariak. Apeza eta alkatia bakarrik gelditu omen ziren Luzaideko karrikan.

Mintza gaiten orai barneko muñaz. Suetian zirenak, bi neska gazte, baserritarrak. Koplariak dionez, ezkontzeko bezperetan, gehiena. Etxe lanetan ari direla, donado gizaigaizo bat ausartu zaie eta eskuan zuen lisa-burdinez erre du batek mutila.

(1) J. M. Iribarren. "Historias y Costumbres", 1965 p. 221.

Ez da afera aundi bat! Bana, bada beste-rik herritan. Nexkatoen familiak zerbait izanki beste batzukin, lisa-burdinaren gertaera artu dute etsaiek haien afontuko. Gazteria, berriz, beti prest festaren estakurrian salsa prestatzeko!

Nasteka guzien buru zen donadua, Arnegiko plazan zela erraiten dutelarik, kontuan iduki behar da nora zoatzin tiroak. Neskatoen aldetik etori izan balira etzen han egonen!

Karrosa au etzen beste aldiz bezain ikusgarri! Arnegin ere mintzatu ziren bi nexkatoen gurasoak eta, guardek etzieten nahi bezala gauzak egiten utzi.

Alare jostatu ziren. Mutilaren paperrian zenak an omen zuen suaren marka. Nexkato arropan, aldiz, mutil itsusi, figura bitxiko, irringarri bat atera omen zuten. Iru bertsulari bai zituzten, arien gain joan zen besta.

Gero, festa onak, astelen txarra; Biramonean ziren kontuak! Pekotxetako guardiak mugatik begira egonak bezperan, parte artu zuten guziak punitu zituzten. Eta serio punitu ere! Amarna duro bakoitzari eta, beren buruak gehienik agertu zituztener berrehun eta berrogetamar peseta.

Emen ditugu orduko bertsuak. Egilea,

Agerreko Bazil, gorriz jantzia zen Arnegi-ko plazan. Eta besteak bezalaxe ordaindu behar izan zuken bere plaza saria. "Luzaideko Kantutan" sartzen baditut bertsu auek, ez da liburuaren betegarri; baditut bertsu paper frango alderat utziak eta auek ere uzten ahal nituen gustian. Ez eta bestiak bano obeak direlako ere; Karrosen oroitza-pen bakarra dugulakotz, baizik. Besteak, aizeak betiko eramanak ditu, eta denbora-ekin oroitza-pen baliosa gerta laizke Luzaideko "Azken karrosako bertsuak".

1/ Mila bederatzi ehun
Ogei ta bederatzi;
Luzaideko suyetan
Publikatzera goatzi.
Bi aizpa zaizkigu
Indarretan asi,
Joka atera dira
Gizon baten nahusi.

2/ Gizonak urbil ditu
Irur-ogei urte,
Aizpa gazte ariek
Aisa jo deraute:
Bietarik bat etzen
Adinetan gazte
Ondoko egunetan
Zuen ezkont urte.

3/ Bigarren gazte hori
Suyeten buria,
Gizon miserablien
sujetatzalia
Ttipia izanagatik
Azkarra jolia,
Aizpa bide zuen
Idukitzailia.

4/ Joitia joite dela
Bada bertzerik ere:
Gasaz frotatu ta
Bi eskuak erre;
Alde batetik burla,
Bestetik dolore
Bi aizpa jarririk
Elgarren fagore.

5/ Erraiten zuelarik,
“Iduki, iduki!”,
Oraino gazte horrek
Etzuen urriki;
Azpira bildu dute
Emeki, emeki,
Eta ipurdia erre
Burdina bateki.

6/ Burdinarekin zuten
Lisatzeko lana
Eta donado hori zuten
Aldian emana;
Etzezaken konsegi
Desira zuena,
Bi aizpen artian
Jo dute gizona.

7/ Desgustu aundietan
Bide dute ama
Hala barreaturik
Bi alaben fama;
Ukatzen omen dute
Egin duten lana
Penetan omen daude
Aita eta ama.

8/ Aita amek penetan
Alabek urriki
Hala asarratziaz
Donado harekin;
Konsolaturen dira,
Oi, denborarekin,
Penak ez dute behar
Luzaro eduki.

9/ Pena aundi horien
Ahanzteko fite
Libertizione bat
Arnegyn ein dute,
Denak preparaturik
Zahar eta gazte,
Hori ahantzi gabe
Joain da zombait urte.

10/ Urtiak pasten ditugu,
Pasturen, agian,
Alegera ibiliz
Libertimendian,
Kontrariua frango
Bazela herrian
Debalde ibilirik
Gobernamendian.

11/ Libertimendu horen
Bazen desafio,
Apez eta maestro,
Anitz kontrario;
Diruaren biltzeko
Bazen amodio
Gobernurat igorriz
Zombait ofizio.

12/ Zahar gazte horien
Baziren arrangurak;
Apezekin ein tuzte
Beren entseguak.
Sakelan balituzte
Gastatu diruak
Libro utz litzazkete
Libertimenduak.

13/ Gobernamentutikan
Ein dute pidaya
Defendiatu nahiz
Libertimendia.
Ahal izan balute
Bazuten ideya:
Kendu behar bidean
Eman dute kuraya.

14/ Kuraya ez da galtzen
Sekulan denetan,
Batzuk galdurik ere
Dabila bertzetan;
Kontrario horiek
Zabiltzan kopetan
Uste zuten gizonik
Etzela bestetan.

15/ Gizonak bazirela
Afera hortako!
Zaharrak buruzagi,
Egia erraiteko,
Ogeitamar Bolant
Baziren jantzako,
Eta gañerakuak
Armada egiteko.

16/ Arnegy'ri goraintzi
Luzaideren partez,
Fagore egin daugute
Eta borondatez;
Fagore behar badu
Jin dedila galdez,
Serbitxatua izanen da
Borondate hunez.

HIL PIZTUA (1954)

Etzen afera aundia, naiz frango polita. Ni Luzaidera joaiteko aintzinean gertatu zen. Erramu igandean, gau erdi ondoan, lau bost mutilen komedia, etxerakoan. Mahatsaren izpiritua gidari.

Bat zuten denen artean hautatia; bigarren bat aren atakatzeko ezarria. Asi dira berotzen, mintzoa goratzen, elkarri lotzen... Biak dira ageri eta, besteak, bide bazterrean gorderik.

“Hi or eta ni emen!”, jo du maleziarik gabe Felizek bere atakatzaila, eta lurrera erori. Luze bezain zabal, atsik gabe dirudi. Mintzoz lehenik, zirikaka eta ahal duen bezain bortitz nahi du itzularazi; bertzia ixil.

Makurrena iretsi du Iribarneko semeak eta badijoa apezaren bila, gero medikuketa laster egiteko. Apeza etzen andik urrun; medikua erriaren beste puntan. Aiek hilarenga-

na orduko, komediantak andik joanak eta
Feliz, ago zabalik, ezin sinetsia.

Polizietan ziren biramonean kontuak!

Bat aski eztela, bi kantu baditugu suyet tti-
pi ontaz. Zer aberastasun xoragarria denbora
guzitako bertsuak bilduak izan balira!

“Hil piztuaren” lenbiziko sail au “Agerre-
ko” Bazilena dugu:

I

airea: “Ikusten duzu goizean”

1/ Mila bederatzi ehunian
Berrogei ta amalauian,
Iragan udaberrian,
Suyet berri bat agertu daute
Luzaideko errian:
Joan den Erramu atsian
Etxerateko bidian
Gauaren destenorian.

2/ Gazte inorant kuadrilla,
Bat, beren ustez abila
Tontokerian dabila.
Bere lagunek ereman dute
Bizkarrian umila;
Mintzo bide zen kuadrilla
Abantxu zegola hila,
Joan dira apezaren bila.

3/ Apeza jeiki arazirik
Joan da prisak arturik
Atzeman nahiz bizirik;
Bainan jaun ori lekura orduko
Kuadrilla eskapaturik.
Edanak, etzen besterik,
Jainkoak ez di'emain laguntzarik
Ori afrontaturik.

4/ Apezaren bilaria
Lagunek enganatia,
Abantxu zela eria.
Bainan oraino ez baizen jina
Zerutik arren galdia!
Ori da inozentkeria
Erriko sazerdotia
Ola ibiliraztia.

5/ Gazte orien kausetan
Anitz mintzo da jendetan
Batzutan eta bertzetan.
Arnoak eman eritasuna
Zuten ariek zainetan,
Buruak zuzten bokatan
Gau artan zarriak trenpan
Laxatu diuzte gostaikan.

- 6/ Hau seigarren bertsia
Onen ondotik bestia
Emain dut ezti eztia.
Jaun medikua apezarekin
Batian abisatia
Aren ararat joaitia
pâtia dute gastia
Bakotxak bere kondia.
- 7/ Gaztia buru arina
Eztut erran nahi dena,
Bainan bai gutiz geiena:
Alderdi txarra, zain eztitzeko
Besten jauzitzen duena;
Errespeta beden, orena,
Ez bai da auzoarena
Edan arnoen obena.
- 8/ Gauak eguna ondotik
Biaramon goiz goizetik
Poliziak xeka asirik.
Bardako trostak, goiz errekesta
Nor ziren jakitearekin;
Jaun medikua poleki
Jostatua da oriekin
Beria kobratziarekin.

II

Bigarren kantu onen egilea ez dakigu nor den. Azoletako suyeta eta Azoleta aldeko bertularia ote diren nago. Nola nahi dela ez nuke nere uste ortan utsegin nahi; eta ortako ez dut bertzerik erranen.

O-yoi-garren men-de-an ba-ga-zi
ya-da-nik Ye-su-krix-to lu-rre-tik ze-ru-rat
i-ra-nik gu-re sal-ba-men-du-a mun-du-
-an i-za-nik gu-re be-ka-tu-en-tzat bi-zi-
-a e-ma-nik Az-ken Yu-di-zi-o-an yi-nen
niz e-rra-nik

1/ Ogoigarren mendean
Bagatzi yadanik
Jesukristo lurretik
Zerurat iranik;
Gure salbamendua
Munduan izanik,
Gure bekatuentzat
Bizia emanik,
"Azken juizioan
Jinen niz", erranik.

2/ Luzaiden egin dute
Pasione berria,
Abisatzera nua
Bertsutan erria.
Gau batez gizon bat
Bidian eroria,
Alegia, ilikan
Zegola jarria:
Hura piztu zaut eta
Auxe da loria.

3/ Goizeko iruretan
Ez da mirakulu
Eskandalak artzia
Ainbertze orgulu;
Munduan elaitoke
Ainbertze dolu
Mahatsaren aihenak
Urinik ezpalu:
Arek enganatzen du
Anitz dizipulu.

- 4/ Norbait ikusiz geroz
Hilikan abantxu
Kontzientziak badu
Zernahi meatxu.
Nork josi behar zuen
Ainbertze petatxu?
Jendek izanen zuten
Anitz erreprotxu
Ezpalitz erne egon
Gaixo Feliz Kotxu.
- 5/ Feliz gizahaxoa
Kexuan dabila,
Bihotz onekoa ta
Gañera da umila,
Lasterka badoa or
Apezaren bila:
"Jauna jin behar zazkit
Prisaka nabila;
Bidean atxeman dut
Gizon zombait hila.
- 6/ Erriko artzain onak
Laster eman du itz:
Zade istaño bat or
Jinen nuzu Feliz".
Kexu ta murriz
Gizahaizo gizona
Au erran bide dako,
Bai askitxo bortitz:
"Hila balin badago
Nik ez dezaket pizt".

7/ Erran bezala biak
Badoatzi laster
Bidean errezatuz
Bizpairu "Pater",
Laguntza galdeginez
Aingeru guzier
Heyen ondotik urrun
Zadien Luzifer:
Hila piztu zaiete
Arte huntan bier.

8/ Apezaren ondotik
Gero medikua:
Feliz gizahaxua
Beti predikuan.
Medikua lasterka
Prisa zelakuan,
Zapeta bat soinean
Bertze bat eskuan,
Telefona lepotik,
Atorra kanpuan.

9/ Sakelan bazituen
Iru lau morfina,
Zazpi kaxeta eta
Bi penizilina
Konsultazionia zuten
Itsurat egina,
Bainan eriak erne
Zeraukan besaina:
Urrundik senditu du
Arien usaina.

- 10/ Biaramun goizean
Feliz Polizietan
Donibanerakoan
Bere bizikletan,
Pasaporteia egin
Behar du eyetan,
Ayek ezarri dute
Pietun bidetan
Lagunen abisatzen
Zoin beren bidetan.
- 11/ Feliz gizahaxoa
Zainak airaturik
Ordu artean badu
Zerbait pasaturik,
Ustez etzuen arek
Egin bekaturik;
Bere lagun guziekin
An elakaturik
Libro utzi dituzte
Oro barkaturik.
- 12/ Diberti zaitezte ongi
Gazteak munduan
Berantegi daiteke
Zahartu onduan;
Bainan au arrazue
Betikotz buruan:
Legearekin ez has
Sekulan guduan,
Galduak baizerate
Betikotz orduan.

Ikus: J. M. Satrustegui: "Mutil Solas" EGAN,
1957, n.º 5-6, 276'gn. orr.

JUAN CRUZ ARROSAGARAY

Anitzetan aipatzen dugu, orri auetan, Jaun Cruzen izena. Lan baliosa egin digu. Luzaidoko seme, Californian bizi da espaldian. Andik izanak ditugu xehetasun guziak.

Idazlari trebea, eskuara goxoa erabiltzen du eta, gero, lumari lotzeko nagitasunik ez! Gaztetarik bertsutako zaletasun eta gustu aundia omen zuen. Bazuen, berekin ibiltzen zuen bertsu kaierra; bana, berak dionez, noizbait ebatsia dakote.

Izatez "Bordel" bazterretxeko semea eta, izen bereko bertsulariaren billoba da. Errian ahantziak ziren "Boryel'en" berri frango jakinaraziak dizkigu orai bano lehen!

Bere bizi moduan nola azi eta ezia dugun jakiteko, au erraiten dauku:

"Zure galdeari erraiten ahal dut, sortzeko paperrak zer dion: Juan Cruz Arrosagaray

Changala, nació el día 14 de septiembre de 1905.

Ogoi urte betetzeko egun beretan atera nintzan sort etxetik; 16'an sartu huntzian, "Le Havre" portian, New York'era buruz.

Bi gauza ikasi nituen etxian oroz gainerik: *Otoitza* eta *Lana* (itz aukerak berak erremarkatiak dira). Bietarik anitz. Zonbait aldiz sobera. Lehena zen ene edukazionia eta bigarrena ene dotea; ogoi urte arte etxian egin lan guzien dotea. Libertate biziki guti gazte laguneki jostatzeko.

Californian, arribatu nintzalarik **u r r u n** utzirik aita amak, aurrideak, gazte lagun guziak, eta ezin konpreni hemengo mintza moldia, ez da dudarik bizi modu gogor bati atera ninduala.

Bi lan ziren denbora hartan eskualdunendako: *artzain* eta *laborantza*. Nik lehena hautatu nuen, duda gabe penitentzia gehio egiteko bakartasunean, eta gero zeruan sartzeko esperantzan. Horgatik uste dut orai urbildua nizan.

1930'ian asi nintzan neure ardiekin eta asi mementotik bortz urtez, Amerikako ixtorian izan den depresione luzena eta serio-sena pasatu ginuen. Gainera, urte idorrak bertzalde. Negozio aundi eta ttipi anitz erori eta desegin ziren; gu, aldiz, xutik geldit

tu ginen, zuhurki segituz gure eginbider Hau izan zen ene bizi guziko bizitzen ikas-tia eta oroitzapena; eta geroztik Amerika-ra yin direnek ikusi eta ikasi ez dutena, eta erranik ere sinetsi ezin diotena.

Orduan banituen bi gauza, ait'amen me-dioz Probidentziak emanak: "osasuna", pa-re gabia, eta "kuraya" neurri gabekua. Auek lagundu naute anitz lanetan eta urtez.

"1936'an itzuli nintzan Eskual-herrira, eta egun txarrak urbiltzen ari ziren. Lehenik Españan reholuzionia asi zen uztailian eta, bazterrak triste eta tinki jarri ziren. Ene-tako ere etzen plazerrik. Ondoko urtian Amerikara yin nintzan berriz, eta geroztik emen nago.

Kantuez istorio. Gaztedanik anbizio aun-dia izan dut Californiara yin eta, nazkien kantuak kaier batian iskiatu nituen. Gero, ene baliza ebatsi zaaten 1932'an. Ene kaier eta bertze kantu guziak orduan galdu ni-tuen,

Erran duan bezala, urte txarrak ginituen denbora hartan eta lan asko gure negozioan segitzeko. Anitz urtez, kantiak alde batera utzi nituen orduan.

1960'an esposatua naiz. Emaztiaren izena Catherine Chaldú". (Pomona (Calif.) 1966. V. 28).

Eta xehetasun auen ondotik, zombait bertsu. Gazte denborako paper bat lehenik: "*Luzaideko Gazteria bi parte*" (1929).

Ona zer dion berak kantu ontaz: "Galduak eta ahatziak nituen oro. Duela lau ilabete izan dut Arjentinatik hauen inprenta kopia, neure izena azpian; eta orduan oroituz niz okupatu nintzala kantu hauen egiten. 23 urte nituen orien egitian. Gure anaia zenak altxatua ba zuen kopia; Bertze zombait ere baditazke galduak gisa berean".

LUZAIDEN KAZTERIA BI PARTE

Airea: "Ayuntamendukoena"

- 1/ Kantore berri batzu
Nahi ditut ezarri
Sujeta zautalarik
Oraintxe etorri;
Konbeni da ixtoria
Dezaun erreberri
Gazteria bi parte
Delarik orai jarri.

- 2/ Aspaldian diferente
Dituzte kondutak,
Batzuek dira onest
Eta bertziak tranpak.
Estimatzen ditut anitz
Azkeneko notak
Jakitiaz tranperiak
Dituztela, ba, kulpak.

3/ Arrazoina bazitaken
Ba, horien artian,
Erreklamatu beharra
Ba zegon aspaldian;
Izanikan ere tranpak
Abil zikanerian
Tronpatuak omen dira
Orai uste gabian.

4/ Ez naiteke orai geldi
Erran gabe egia
Kunplitu nahi bai dut
Izan duan enkargia;
Unitu delarikan
Onesten alderdia
Errefus utzi dute
Hobendun tronperia.

5/ Tronperia hori zailan
Engaño maleziaz
Fin onik egin gabe
Duten abileziaz;
Etsenplu hartzen bada
Horien itatiaz
Baliatu dira ongi
Zauketen sekretiaz.

6/ Afera hauek ez banitu
Niahurek asmatu
Ez nitzazke gisa ontan
Orai nik publikatu;
Ba herrian ala kanpo
Dugularik tratatu
Guzientzat irabazia
Berek dute altxatu.

7/ Badakigu anitzek
Horien portamendia
Erabili diren gisan
Sospetxa etzen galdia;
Buruzagi zabiltzano
Beti aundi kondia,
Soberakin zen dirua
Hau berentzat gordia.

8/ Gisa hortan abilki
Zabiltzan negozian
Uste gabe ez balira
Tronpatu azkenian;
Beren botuz musikariak
Ezarri herrian
Gero ezin zaztekela
Pagatu tenorian.

- 9/ Akorda eta goberna
Bertzeri erran gabe
Berak izanik bezala
Herri guziain jabe;
Holakorik ez ahal da
Aditu nehon ere
Musikariak dituztela
Utzi pagatu gabe.
- 10/ Dela gazte buruzagi
Bai ala kontseiluko
Karrikatar denaz geroz
Ez da estonatzeko;
Egundaino okupatu
Direlarik buruko
Ahal guzia egin dute
Bertzen gain bizitzeko.
- 11/ Anitz aldiz baliatu
Bainan orai kanbio
Arrapatu dutelakotz
Uste baino seriô;
Manobratzen zuten ontsa
Engañuaz medio
Bainan ez dukete parrik
Pasaturen gehio.

12/ Jakina da ez daizkela
Orai aise errex
Konpañian ez nahiz,
Dituztelarik berexi;
Nausi aundi egon eta
Mutil baitzê itsusi,
Beren falta duketela
Behar dute sinetsi.

13/ Presenteko manerak
Dituztela holaxe
Duda gabe dolutiak
Badirela berantxe
Triunfatu nahirikan
Gelditu apaltxe
Errespetuz segituko
dira, agian, oraintxe.

14/ Bertsu ontan zerratzen dut
Partikular berria
Jakin bezate nola dailan
Luzaideko herria:
Gastu egile "karrikatar",
Pagatzen "laboraria"
Gazte hala zaharretan
Berdin zikaneria.

15/ Biba orai bitoria
Oneski daudenetan
Kuraiosoko egon zaite
Dituzien deretxotan;
Etzaiztela, otoi, beldur
Engaño orietan
Plazer aundia izain da
Adiskide guzietan.

16/ Kantu hauk paratuak
Apilain lehenian
Emeretzi ehun eta
Ogoita bederatzian,
Ardien zain nagolarik
Urrun, Californian
Gustu onez kantatzeko
Gure Eskual herrian.

LUZAIDAR BAT KANTUZ

Juan Cruz'enganik izan nituen lehenbiko berriak erdaraz emanak ziren. Nik eskuaraz erantzun eta, "LUZAIDE" aldizkaria bialdu ondoan artu nituen bertsu auek. "Adiskide, —erraiten zidan—, aldi huntan eskuaraz igortzen dauzut, eta bertsutan, zure letraren errepostia; barkatuko derazu ene ausartzia..." 1964'ko Martxoaren 12'ko solasa da.

Airea: "Xarmegarria zira eder eta gazte."

1/ Gaur goizian izan dut
Luzaide'tik letra
Nik igorri kantuek
Dutela errekesta;
Ez naike ixil geldi
Hori entzun eta
Horgatikan behar dut
Nik eman kontesta.

2/ Orai zuri mintzo naiz
Yaun Bikarioa
Zure azkeneko letrak
Argituz gogoia;
Nik eskuaraz iskiatzia
Duzu nahiagoa:
Huna zenbat dakitan
Ementxe badoa.

3/ Nola ikasi nuen
Eskuaraz iskiatzen?
Bertzeri begiratzuz
Plumaren ibiltzen.
Erreintik bate gabe
Nihaurek moldatzen
Faltak eginik ere
Ez naiz estonatzen.

4/ Eskuaraintzat izan dut
Beti anbizione,
Holako mintzabideik
Ez baita nehone;
Bainan pratikatzen du
Bakoitxak bere alde,
Zuzenki nork dakien
Nik egin dut galde.

5/ Oraino ez dut izan
Orren errepostia,
Nehorek ote dakien
Nauzu dudatia!
Yende abilek dute
Ongi estudiantia;
Ezin atzeman nun den
Eskuara sortia.

6/ Eskual herriak ttipi
Eta urbil elgarri,
Halare batek bertzia
Ez dio konprendi;
Gure izaite guzia
Batera baladi
Formatzen ahal laike
Erresuma haundi.

7/ Zer desiratzen dautan
Barnetik bihotzak?
Denek berdin egitia
Eskualdun solasak,
Bai eta iskiriatu
Gisa berian itzak;
Noiz atzemanen gaitu
Holako amentsak!!

- 8/ Aments hori ardietsiz
Gauza baliosa
Guziek konprenditzia
Familiako gisa;
Gidariek erakuts
Balezahute ontsa
Ez laiteke ikastia
Batere nekosa.
- 9/ Eskuaraz mintzo naiz
Oraiko aldian
Nahiz ez dutan egin
Hau lehen klasian;
Estimatuko duzie
Norbaitek, agian,
Eta zuk Yaun Bikarioa
Eskura hartzian.
- 10/ Azken bertso huntan
Erran nahi dut nik
Luzaidar guzientzat,
Agur hun ementik!
Anitzek bai nauzie
Arras ahatzirik,
Yinkoari esker naiz
Oraino bizirik.

OSPITALEKO BISITA

Batzutan, artzainaren ondar egunak eta anitz urtetako irabaziak eritegi baterako dira. Ondarrola Udiri bazterretzeko semeari emanak ditu Juan Cruzek Californian bertsu auek. "Ni ez naiz berso emailea —erraiten digu berak—; ambizionia banuen gazetikan, bainan pratika falta nuen beti. Bakarrik, konprenditzen dut puxka bat nork emaiten dituen ontsa eta gaizki. Anitz aldiz, airearekin berdintzeko, itzak behar dira luzatu; bertze zonbait aldiz laburtu." 1965'koak ditu lerro auek, eta uda artan emana kantua ere.

Airea: "Dama gazte xarmant bat..."

1/ Agur adiskidia
Pedro Etchamendi!
Bisita bat egin dut
Berrikitan zuri
Yakinean zinela
Ospitalian eri,
Ez baitzitzan agrados
Neri berri ori. (*bis*)

2/ Ospitalia ez baita
Leku alegera,
Ezin bertzela salbo
Nunahi obe da;
Bainan heltziarekin
Estremo batera
Zoiñatzeko lekurik
Oberik ote da? (*bis*)

3/ Oroitzapen izain dut
Zure ikustia,
Iduri zaut zirela
Paziente noblia;
Egin operazione
Biziki aundia,
Onera dua itxuraz
Oraintxe guzia (*bis*)

4/ Pasatuak pasatu
Onera duan geroz
Ikusten dut zirela
Biziki kuraios;
Zurekin solastatzia
Izan zaut kurios
Berriz ere artzeko
Betia niz deseoz. (*bis*)

5/ Eritasunik gabe
Bizi den presunak
Ez daki zenbat duen
Balio osasunak,
Ez eta estimatzen
Adiskide onak;
Oro probatzen ditu
Pasatzen duenak. (*bis*)

6/ Ospitaletik fite
Zu atera zaiten
Bihotz onez deraizut
Ori desiratzen;
Zeure familiara
Etxera juan ziten,
Eta zeure aferez
Han okupa ziten. (*bis*)

7/ Bainan juan behar duzu
Oraino emeki
Urratsa beti aitzina
Gibelera ez utzi;
Segurtatu artian
Kasu egin biziki
Gero luzaz biziko
Zirade uroski. (*bis*)

8/ Bisitaren ondotik
Ontan uzten zaitut
Berriz ikustekotan
Omore eta gustuz;
Agian ariko gira
Elgarrekin kantuz
Zure adiskide on
Gelditzen naiz Juan Cruz. (*bis*)

ARTZAIN ESKUALDUNAK

Eskualdun gu bezala eta, beren sorterriak maite zituztelarik guk bezanbat, Eskualerri-tik atera behar izan zuten eta joan Ameriketara. Emen ere baziren ardiak eta mendi ederrak; bainan, denendako eskas... Nork jakin lezake denbora guzitako artzaien berri!

Frangotan, etziren arras beharrarengatik etxetik aterako. Erriko amerikanoak urrezko medaila zuten lepoan eta, zapel aundi bat buruan, lanik egin gabe ongi bizitzeko. Bai joan, bai! Eta zenbat ziren itzultzen amerikano?

Udaberrian loratzeko azia balu muiñetan gizon ezurrak, arantz biziko arrosaz ereinak ginuzke eskualdunok, itsas beste aldeko desertu frango. Odol koloreko arrosak.

Eskual liburu ederrik sortzen ari da ondar urte auetan. Ameriketako artzainen go-

ra-bera,, eta egunoroko trostak bilduko dituen zerbait behar ginuke lenbaitlen. Ainbeste gauza jakingarri bada etxe zokotan!

Montebideo'tik 1841'ean egindako leerroak dira, emen ekartzen ditugun auek:

“Ene aita eta ene ama; gomendatu ninducien hemengo berriak, igortceco. Irabaz bide hunik badela, hola kontinatcen badu: hogoi ochineco bat yrabazten dut ilabetian. Yornalian ari direnek borz libera dute.

“Guizon alferrik hunat eztadin yin; Yropan ez duzu hemen bano gorputzarendako plazerrac aisago emanen dazconic. Guizon alferrak lanera batere yuaitia asqui du: araguis asia izanen du lur huntan.

“Ene adiskide maitiac, guizon familia-cuac gehiago itzuli nahi badu horrat, eztadin yin! Bere buriaren arrengura baicic ez-tuena untsa izanen dela; bidaya luzia artcen diela; hemen badela guehiago horrat yinen ezten frango...

“Mundu huntan diren yende gucietaric emen baduzu, eta hiltcen dituzte tiroca eta kanitaz orobat. Ene anayain berriak yakin nahia nuzu... hunat gaztigatu ahal bezain usu berriac. Beldurra badugu; gerlaren fama badu(gu) haundia. Orai seguric hola luzatcen badu hiri aundia izanen da. Obra

anitz ari da eguiten Montebideon. Ofiziua dienak untsa izanen dira...”

Gizonaren bihotzak berez eman lezaken fruitu guzitarik bada artzain eskualdunen baratzean: amodiozko amets, bakardadearen zama, eritasunaren zimikoak.

Eta berdin bertsu kontuan. Ez dira denak idatziak; eta iskiatu dutenek, behin edo beste bakarrik bertsutan. Gure egitekoa da ezagutzen ditugunen biltzea.

Luzaideko bertsutan Ameriketako artzainen lerroak aipatzean, adiskide anitzen ize-nak heldu zaizkit burura. Deneri eskeintzen dizkiet oroitzapen bezala.

KALIFORNIAKO BIDAYA

Jean Etcharren, Irulegi'n Agerreko semea da bertsu auen egilea. 1901 aldera joan zen Ameriketara. Iru lau lekutatik izanak ditut kantu onen zehetasunak. Luzaiden bada kopia zaharrak; eskuratu duten zaharrena Karrikaburukoa (1881).

Juan Cruz'ek bertsulariaren etxetik izanak ditu berriak. Ona berak zer dion: "Irouleguy, Agerrekoek emanik izan dut kantu auen kopia... eta itz batzuk kopia ontarik sartu ditut hemen. Lehen bertsuan dago sanjarik aundiena. Bertzalde errepostia igorri dut ez direla xuxen heien kopiak. 6'gn. bertsuan daukate *"Neyorkeko hirian / Izan naiz egun batian / Boneta txar bat burian..."*

"Etcharren etzen Neyorken izan; Santanderretik jin zen untziz Habanara; eta Habana'tik, berriz huntziz, Mejikora. Mejikotik, lurrez pasatu zen California'ra".

Emen argitaratzen ditugun bertsuak ortarik artuak dira. Gero emanen ditugu kopia bakoitzaren aldaketak.

Airea: "Ikusten duzu goizean..."

- 1/ Bertsu berriak ederki
Eman nitzazke banazki
Hauk diren bano hobeki.
Halarik ere nik zenbait bertsu
Emanen ditut oneski,
Egiak dira segurki
Nahi tuenak sinetsi
Nahi eztuenak utzi.

- 2/ Aitaren kreatura
Amak emana mundura
Aspaldi zen egun hura;
Buraso hunak yuan zitzaizkidan
Haur nintzelarik zerura,
Yin nintzan adimendura
Lurreko bizimodura
Badut zorbait arrangura.

- 3/ Sortu naiz Eskual-herrian
Hazi ere toki berian
Oi, leku maitagarrian.
Egun ederrik pasatu dizit
Gazte lagunen artian;
Orai ororen burian
Artzain naiz Californian
Bakarrik bortu gainian.

4/ Izana naiz Españian
Ez bakarrik barrenian
Abantxu hiri nausian.
Iruñen eta bai Donostian
Bai ta Bilbau'ko hirian;
Gero biharamunian
Santanderreko hegian
Han sartu nintzan huntzian.

5/ Pasatu dut itsasoa
Traselantikakua,
Leize bista gabekoa.
Atseginikan finkatu nuen
Leihor gainian zangua,
Naiz ez nintzan gordua
An utzi gabe kaskua
Arrainen asetzekoa.

6/ Ni Habanako hirian
Izan naiz egun batian
Bonet txiki bat burian.
Andre beltz heyek zalapartaka
Ihes ene aintzinian
Zuriak irriz atian,
Itzuli nintzan ordian
Ahalgeturik bidian.

7/ Handik gero itsasora
Abiatu petik gora
Juaiteko Mejikora.
Aski luze zait iduritu
Han eman dudan denbora;
Yin zitzautan gogora
Juaiteko San Franziskora
Eskualdun maiten ondora.

8/ Izanagatik txapeldun
Zapatak ere botoindun,
Moltsa ez nuen dirudun.
Kalifornian sartua banaiz
Zuri esker dut, Erramun,
Zu zirelakotz eskualdun,
Beharrarentzat bihotz hun:
Horra ordainak nun tuzun.

9/ Hau duket azken pertsua
Iluna dut hurbildua
Artaldea urrundua.
Gaineko aldetik eausiaka
Koyote milla deurrua.
Gau on Erramun gaizua
Nola baituzu gustua
Kirrinka zazu soinua.

Karrikaburu (Luzaide).—Egilearen denborako ko-

pia. Pundu gehienetan au artu dugu. Ona zombait aldaketa:

1/4: Halarik ere sei zazpi pertsu; 4/1: Ni izan naiz Españian; 4/4: Iruñen ala bai Donostian; 6/8: Ahalgetia bidian; 9/5: Kuyote milla deurrua; / Gau Erramun gaichua.

Juan Cruz Arrosagaray (California).—Bi kopia diferentak baditu.

1/2: Ezar nezake banazki; 1/7: Nahi duenak sinetsi / Nahi ez duenak utzi; 2/1: Aitaren krea-tura; 2/4: Buraso onak juan zauzkitan / Haurra nintzalarik zerura; 3/3: Sort leku maite garrian; 4/1: Izan naiz Españian; 4/4: Iruñen eta Donostian; 4/8: Sartu ninduzun untzian; 5/1: Trabesatu dut itsasoa / Transatlantik'akoa / Leize bista gabekoa. / Atsegineki pausatu nuen / Lehior gainera zangua...; 6/1: Habanako hiri ederrian / Arribatu nintzarian / Boneta txar bat burian...; 7/1: Gero handik betik gora / Abiatu itsasora...; 7/4: Aski luzia iduritu zaut / Han egon nintzan denbora; Jin zerautarian gogora / Juaiteko San Franciscora, / Eskualdun maiten aldera; 8/1: Nahiz burua xapeldun; 8/4: Californian sartua bai niz / Zuri esker-rak, Erramun, / Zu zirelakotz eskualdun / Behar duenaren biotz on...

Egilearen sort-etxeko kopia ukan ondoan aldatuak ditu J. Cruzek itz zombait:

1/1: Kantu berriak ederki / Ezar nitzazke banazki / Hauk diren bano hobeki. / Halarik ere emanen ditut / Zombait bertsu oneski...; 2/5: Haurra nintzenian zerura; 3/8: Bakarrik mendi gainian; 4/1: Izatu naiz Españian Z ez bakarrik bazterrian; 7/1: Handikan petik (malda) gora; 8/1: Burua nuen xapeldun; 8/7: Behar duenaren biotz dun.

MAÑES URRUTI'ri

Artzaiak ere gizonak dira eta ostatu eskualdunetan bildu ta, egiten dituzte beren festak. Behar ere! Bakardadea lagun pisua baita. Alakotan dituzte arrangurak ixiltzen.

Egun oietako bertsuak alaiak dira eta elgar atakatuz "mus" partidari gatzia emaiten dakote. Emen ekartzen ditugun bertsuak, Juan Migel Arricaberri, Luzaide'ko semeak, Donibaneko adiskide bati zuzendutakoak dira. La Habra, Californiatik, bialdu zauzki-gun eta "Luzaide" 8'garren zenbakian argitaratu genituen.

Airea: "Oxalde eta Etxahun"

1/ Aski luzaz egonik
Desertian, bakarrik,
Zonbait lagun bagira
Errekontraturik,
Egun zonbaitendako
Otelan jarririk;
Mus, yantza eta pilota
Mota guzietarik
Egiten dela emen
Ez ukan dudarik.

2/ Oteleko nausiak
Goiz batez orori
Erraiten dauku, beraz,
Berri aundi ori:
Yin berri bat ba duk or
Tinbala iduri.”
Guk orduan elgarri:
“Nor deabru da ori?”
Berehala pentsatu:
Mañes Urruti.

3/ Kurios izan zira
Hunarat yiteko,
Deus onik ba ote zen
Emen zuretako?
Ohartu ahal zira
Segurki fitexko
Penatu behar zela
Sosaren iteko,
Bai eta gibelerat
Itzuli zaluxko.

4/ Orai duzu zuretzat
Estremitatia,
Makurrik egin gabe
Holako afruntia,
Jende guzia bai zen
Zutaz arritia.
Nolaz uzten zindien
Sort-leku maitia:
Orai ikusi duzu
Nun dagon “Nortia”.

- 5/ Hunat yinez geroz,
Zonbait ilabete
Zerbait sufriturik ere
Behar zituen bete,
Yuan yinaren saria
Bederen in arte;
Orduan ez zinuen
Makurrikan bate:
Ala norbaitek
Pagatu dauzute.
- 6/ Emengo gizon zahar,
Ardi nagusiak,
Goizetan yin orduko
Beti erasiak
Ez ditugulakotz egin
Jaunaren gustiak.
Itz batez erran behar:
“EUSKALDUN TRISTIAK!!!”
Nola jasan zuk, Mañes,
Oriek guziak?
- 7/ Hobe duzu, segurki,
Garazi txokuan
Zonbait zapeta pare
Zaharño altzuan,
Eyeri hiltze sartzen
Pipatuz gustuan,
Trago zonbait eginez
Gero ostatuan,
Ezpaitukezu urrun
Hura mementuan.

8/ "Ah y suieset y rest"
Erran zinduela,
Pentsatzen ere dugu
Egia ditakela.
Or baduzu beti
Euriko paisola;
Hemen, aldiz, bustia
Oillua bezala.
Segur niz zure mustra
Pollit ditakela.

9/ Nahiz emen egonez
Mendian bakarrik
Etzinuen ukanen
Holako pantzarik;
Beharko zinuen jan
Zuhaurek prestaturik
Edo bertzenez egon
Arrats artio barurik:
Hak ere, ene iduriko,
Ez duke gusturik.

10/ Beraz, gaizo Urruti
Or egon zaitela
Zure etxian gustura
Lehenago bezala;
Beti berdin eginez
Zapetain zola.
Udan, aldiz, zoazi
Arturik xirula
Gazten jostarazterat
Orai artian bezala.

11/ Bertsu ontan mintzo niz
Adiskidendako,
Etxian huntsa denik
Hunat ez yiteko;
Or ere behar baitu
Norbait laneko
Gure leku zaharra
Bera ez uzteko:
Bekatu ere baita
Abandonatzeko.

12/ Bai, behar dugu orai
Finitu solasa;
Bakantzak finiturik
Mendirat bagoatza.
Halta, badugu emen
Milaka karesa;
Bainan ez da galdu
Eskualdun erraza:
Odola sano du eta
Trankil du bihotza.

13/ Azken bersuño au da
Nexkatuendako,
Prest presta egon diten
Gu orrat orduko,
Linyeria eginik
Zoinek ederrago
Eneatuko baigira
Gu ere donado,
Noizbait erran dezagun
Baditugula oro.

EZKONTZA FAMATIA

“Ene ezkontza / Jalgi da famatia”, —dio kantuak—, “Ukaiten nuelakotz / Amerikanua”. Gañekoletan zen, delako amerikanua; Koxinen’go premua.

Emazte-gaia, berriz, Florencia Urrizaga Ondarrolakoa; Zeztan’ an goxoki azia. Arek Koxinen’go bordaldetara ezkondu nahi; eta Florentziak ez. Abisatia zuen mutila: *“Etzira aintzinatik / Esplikatu faltan / Ez nintzela sartuko / Zure bordaldetan”*.

Nola nahi dela, ezkontzeko egunetan egin dako mutilak jokia; utzi eta Ameriketara joan. Emezortzi urte zituen nexkatoak. 1915’-ean ezkondu zen, Lasa (Francia), Unaiain’eko beste amerikano batekin. Urte berean Californiara joan eta Stockton izeneko errian bizi ziren.

Ondarrolan bilduak nituen lehenik bertsu auk; Bernatene’ko kahier batean. Zonbait pundutan ez nitzan sobera fida eta Juan Cruz Bordelekoari berriak galdeginik, Californiatik ukanak ditut xehetasunak.

1/ Huna bertsu berriak
Badira Luzaiden
Guziek baitakite
Suieta nola den;
Malezian zinela
Ez nuen pentsatzen!
Xangrina hau nehor
Ez dut desiratzen.

Tra-la-la, la-la-la,
Tra-la-la, la-la-la;
Xangrina hau nehor
Ez dut desiratzen.

2/ Deseotan bazinen
Itsasoz joaiteko
Zertan ibili zira
Ene enganatzeko?
Zure amodioa
Etzen enetako.
Uroski libro bai niz
Beste batendako.

3/ Lehen Kalifornian
Orai Buenos Aires'en,
Etzira leku batian
Aisegi gelditzen;
Ikusten ba zizute're
Urrez inguratzen
Nor asiko da zure
Ezkontza egiten?

4/ Lan ori egin duzu
Zeure sort-herrian
Ene xangrinatzeko
Itsasoz joaitian;
Oroituko bai zira
Denbora batian
Fede ukatu guti
Sartzen da zeruian.

5/ Esposatzera nintzan
Zurekin abian
Maleziarik gabe
Neure bihotzian;
Ahalgetua nago
Nigarra begian
Zertako egon nintzan
Zuretzat finian.

6/ Kontuz egin bite
Ezkontza tratiak
Engana ez ditezen
Adinez gaztiak;
Holakuak izan dira
Zure eginbidiak,
Esenplu ar dezala
Gurekin mundiak.

7/ Ezkontza egin eta
Itsasoz joan zira,
Orai gisa ortako
Suieta zu zira;
Nehor agertzen bada
Zuretako fida
Ene fediarekin
Ezkonduko zira.

8/ Ez duzia senditzen
Deusikan ariman
Konzientzia garbi
Duzunez ereman?
Sakramendu saildua
Baituzu itzeman,
Haren barkamendua
Behazu Erroman.

9/ Ustez ba den denbora
Luzaz egoiteko,
Gurretik biarrera
Ez da fidatzeko;
Zer zinuen suieta
Lan horren egiteko?
Garbi behar da izan
Itsasoz joaiteko.

10/ Emezortzi urtetan
Neure adinian,
Zuk enganatzekua
Sortu niz mundian;
Orai eginen duzu
Fortuna agian,
Amerikako lurra
Aberats denian.

11/ Etzira aintzinatu
Esplikatu faltan
Ez nintzela sartuko
Zure bordaldetan;
Orai konsolatzen niz
Ene aita-metan,
Ene senar beharra,
Zu, Ameriketan.

12/ Baldin izan bazinu
Amodio fina
Etzinuen galduko
Zeure fede ona;
Oizu urreria eta
Hari darraikona,
Hortaz estrena zazu
Gogoan duzuna.

13/ Ene nahiz ez dauzut
Gaizki desiratzen
Zuhaurek ez baduzu
Bertzerik tronpatzen;
Aita eternalari
Nauzu gomendatzen,
Zeruko erresuman
Biak sar gaitezen.

14/ Anderia etzaitela
Sobera xangrina
Jaunak emanen dauzu
Zuk behar duzuna;
Begiratzen baduzu
Zuk garbitasuna,
Bere gisa utzazu
Gaizki dabilana.

15/ Etzitela inkieta
Hortaz, anderia,
Ez baita gutiago
Zuk duzun ohoria;
Zu uros ezkontzeko
Ez da tenoria,
Gorderik atxikazu
Zuhauren floria.

16/ Ene ezkontza jalgi da
Fama aundikua
Ukaiten nuelakotz
Amerikanua;
Biotzian dukezu
Zuk egin tratua,
Mundu ontan zireno
Jarraikitzeakua.

17/ Jaunak lagun zaitzala
Zeure urratsetan,
Inbidia gaixtorik
Nik ez dut deusetan;
Ni emen gelditzen naiz
Mila plazerretan,
Zure herririk gehio
Ez entzutekotan.

18/ Adios Luzaideko
Zahar-gazteria,
Zier etzait sobera
Errepikatzia
Zihaun erresumako
Jaunak hautatia;
Finik gabekua da
Eternitatia.

“Cuaderno Bernatenea”. Ondarrola. — Eskuz idatzirik dago.

Aldaketak:

1/1: kontu berriak; 1/7: xangrin ori; 2/1: Desiratia ba zinin; 2/3-4: Zertako ibili zira / Ene enganatzeko?; 3/3-4: Leku batian etzira / aisa gelditzen; 3/5: Ikusten ba zintzute're; 3/7: Nor asiko ote da; 6/1: Jaiziz egin beite / Ezkontzen tratiak; 7/2: itsasoz airian; 8/8: Behar duzu eraman; 9/1: Denbora baldin bada; 9/5: Non zinuen suieta; 10/3: Zuk enganatzeko; 10/7: Amerikano lurra; 11/3: Etzizela sartuko; 12/5-6: Ori zure urreria / eta darraizkonak; 13/1: Ene maitia ez dauzut / desiratzen; 13/4: bertzerik egiten; 13/8: biak ar gaitzen; 14/5: begiratzen duzularik; 14/8: gaizki mintzo dena; 15/3-4: Ez duzu gutiago / zuk ohoria; 16'gn. berttua, amazazpigarren. 16/2: famatua; 16/6: egin duzun tratua; 17/4: desirutan; 17/7-8: Zure berrik berriz / Ez jakitekotan; 18/1: Horra, beraz Luzaide. 18/4: Errespetatzia; 18/5: Bere erresumako.

Juan Cruz Arrosagaray. — Ameriketari duen eskuz idatzitako bildumatik artua. (Pomona (Calif.) 1967. Otsailak 26).

Aldaketak: 1/2: Baditu Luzaiden /Guziek badakite; 4/3: Ene enganatzeko; 6/1: Jakinez egin bite. (Bere anaia zenaren paperretan: Ikusiz egin bite / ezkontza tratiak; Engana ez ditzaten...

9. — Amargarren ekartzen du: 9/1: Uztez baden denbora; 10/7: Amerirako.

11'garrena; 13'na da: 12/1: Berdin izan bazinu.

13. — 17'gna: 14/2: Horgatik xangrina; 15/1-2: Etzaitela xangrina / deusetan anderia; 16/1: Ene ezkontza galdu da.

17. — 9'gn. dakar Juan Cruzek.

JUDU ERRATUA

Aspaldikoak dira Eskualerrian “Judu Erratuaren” kantiak. Bere denbora guzian munduz ibili zela ta, bizi dena gerta laikela berri-
rrez ere aren ikusten, aditzen genien xahar-
reri. Lengo mendean agoz ago zebiltzen gu-
re artean kantu auk. Eta ez eskuaraz ba-
karrik; frantses eta español, aleman, ingles
eta italianoz ere ezagutua zen suyet au.

Eskual liburutan genituen kopiak laburrak
ziren: amar bat bertukoak eta hola. Orai,
Luzaiden agertu berria dugu ogeitalau ber-
tsu ekartzen dituen kopia. Ortako emaiten
dugu Luzaideko kantutan.

Ageri da eskuarazko bertsu-
en egileak frantses paperra zuela begien aintzinean; punduz
pundu gai berdina dute biak eta lerrokada
berean emanak dira bertsuak. Gañera, es-
kuaraz erdizka bakarrik adierazten diren
punduak, argi ta garbi ekartzen ditu besteak.

Izenak, batez ere, nahasiak dira eskual kopian.

Alare, bai batek nola besteak gorago dute beren iturburua. Europa erdi-aldeko kutsua badute. Bigarren bertsuari aipatzen diren "buryes" oiek nortsu zazteken jakiteko aski dugu frantses paperra eskuan artzea:

"Des bourgeois de la ville / de Bruxelles, en Brabant".

Gañera, eskual bertsutan arnoa eskeintzen dakoten bezala, garagar arnoz mintzo da erdaraz: D'un pot de bière fraîche. Europa erdi aldeko edaria.

Judu erratuak izen frango ukan ditu bere bizi luzean: "Abasuerus", "Ahasverus", "Isaac Laquedem". Eta Xubero aldean "Judiferran" erraiten dakote.

Nola nahi dela, kantutan den judua ez da gizon bat, xaharrek uste zuten bezala. Israelgo erria, du kantuak bere lerrötan. Bere lurrik ukanen eztuen erria bezala jotzen zuten lengo jendeak. Eta orai berean ere badira sineste ori dutenak. Azken juizio etorriko omen da juduak errialde baten jabe izaiten dielarik...

Josefa Ezpondaburu, "Otxinesa xaharrari" esker ditugu Luzaideko paperrak, Eskual bertsozale guzien izenean eskerrak emaiten dazkot.

1/ Ote da mundu huntan
Deus ere gai denik
Yudu erratiari
Konparoa daitenik?
Nik ez dut uste baden
Nehon miserablerik
Haren zortiar
Hurbil daitekenik.

2/ Egun batez pasatzian
Hiri baten aldetik
Buryes batzu zitzaizkon
Jarraiki ondotik;
Zioten ez zutela
Ikusi gizonik
Harek bezain bizarra
Luzia zuenik.

3/ Ikusi zutenian
Beren presentzian
Zenbait estrañer zela
Jarri ziren dudan:
Arropa forma bat soinian,
Zela adin aundian,
Langile bat bezala
Taulierra aitzinian.

4/ Erran ere zioten:
"Egun, on nausia!
Desiratzen ginuke
Zure mintzatzia
Satisfa dezagun
Gure desirkondia
Bai eta ere akorda
Hemen dringatzia.

5/ Aitortzen derauziet
Malur bat dudala
Etzitezela duda,
Egia bera da:
Euri edo denbora hun,
Beti kurri nabila,
Nehon ez naite geldi,
Juan behar aitzina!

6/ Ostatuan sar zaite
Gurekin, gizona,
Edatera emanen
Daizugu arnua;
Errezibi dezaguzu
Gure ofrimena
Borondate hunian
Egiten daizuguna.

7/ Ostatuyan sar nindaite
Ziekin gogotik
Bai eta ere edan
Zien arno hunetik;
Ni ezin jar naiteke...
Edanen (dut) xutik,
Tormentek artzen naute
Geldituz geroztik.

8/ Aitortzen deraizugu
Kurios girela,
Zure adinaren berri
Jakin nahi ginukela;
Ehun urte baituzula
Iduritzen zaigula,
Edo zure bisaya
Tronpos da bertzela.

9/ Ene ezurrak dira
Arras zahartiak,
Bai eta ere urtez
Anitz kargatiak:
Emezortzi ehun urte
Baitut pasatiak
Hetaz izan zizte
Oi segurtiak.

10/ Zu ote zira bada
Gizon famatia
Mundu guzia baita
Ongi estonatia?
Satisfa dezaguzu
Gure izpiritua,
Heya zu zarenez
Judu herratia.

11/ Israelgo hirian
Izan niz deitua,
Jerusaleme famos
Hirian sortua;
Satisfa bedi beraz
Zien izpiritua:
Jaunak, ni nauzie bai
Judu herratua.

11/1: Bertsu au ez da xuxen. Israel ez da hiri bat.
Frantsesak dio:

“Isaac Laquedem / Pour nom me fut donné;
Né à Jérusalem / Ville bien renommée...”

Eskuaraz:

“Isaac Laquedem / izan naiz deitua
Jerusaleme famos hirian sortua...”

12/ Munduya pasatu dut
Bosgarren alidan,
Orai berdin abantxu
Seigarrenian;
Bakotxak hiltzen dira
Nor bere aldian,
Eta ni ezin hilez
Nabila mundian.

13/ European ikusi dut
Eriotze anitz,
Mihiz esplikatzia
Posible balitz,
Espreski orietan
Ibili izan niz,
Nola edo zerbait ere
Gisetan hil nahiz.

14/ Pasatu izan nintzan
Hiri herrietan
Kausitzen ahal nituen
Gerla guzietan,
Esenplu hartu izan
Aisa horietan
Eriuak ez duela
Indarrik ni baitan.

- 15/ Leihorra pasaturik,
Egin itsasua're,
Geldituren ninduela
Agian hark ere;
Nik samur nahi eta
Ginen adiskide,
Enetako berdin du
Edozein bide.
- 16/ Nik ez dut zorrik iten
Batere etxetan
Ez eta artzekorik
Nehon bazterretan;
Beti bost sos sobera
Baditut sakeletan,
Euri edo denbora hun
Toki guzietan.
- 17/ Entzuten ginituen
Munduyan erranak,
Amens batzu zirela
Haren arrazoinak;
Ongi ikusten tugu
Zure trabiluak,
Bai eta ere sinesten
Direla egiak.

18/ Zure ospe aundiak
Estonatzen gaitu,
Gure izpirituan
Dudatzen baigitu;
Dударик gabe duzu
Ongi merezitu
Jaunak zituenian
Zu hola punitu.

19/ Neure gaizki aundia,
Erranen egia,
Gaizki tratatu nuen
Nik Jesus maitia;
Izan behar-bidian
Urrikalmendia
Zerbitxatu izan nuen
Krudelitatia.

20/ Jesus jiten zelarik
Jerusalemetik
Kurutzte saindu hartaz
Ongi kargaturik,
Galdegin izan zerautan
Umiliaturik,
Heya plazer nuyenez,
Bortan pausaturik.

21/ Nik, buruya nahasia
Eta errebela,
Ezetz erran nakon,
Seurki, berehala:
“Habil hortik aitzina,
Habil kriminela,
Haren han pausatziatz
Afrontu nuyela”.




22/ Jesusek erran zerautan
Ordian berian
Mila urtez bereden
Ibiliko hiz mundian,
Deskansian izanen hiz
Ororen burian
Pena guzietarik libro
Azken yuyamendian.

23/ Partitu izan nintzan
Ordian berian,
Pena, xangrin, dolore
Guzien erdian;
Geroztik beti kurri
Nabila mundian,
Deskansurikan ez da
Ene gorputzian.

24/ Denborain presentzian,
 Adios konpañia!
 Erremesiatzen dut
 Zien kuraiyia;
 Juan behar niz aizina,
 Oi hau doloria!
 Bestela enetzat
 Tormenta haundia.

* * *

Bertsu auek, doñu aunitz dute. Aita Do-
 nostia'k bildu zuen bat ezarriren dugu he-
 men oarretan.



Nehor et C. Dufau. "Judu Herratuaren Kantuak".
(Gure Herria; Nov. 1926).

Amar bertsu ekartzen ditu. Ez dira xuxen lerrokatuak: I, Luzaideko 20'garrena; II, L. 21'gna.; III, L. 1'koa; IV, L. 2'gna.; V, L. 6'gna.; VI, L. 7'gna.; VII, 8'gna.; VIII, 9'gna.; IX, 14'gna.; eta X, 12'gna.

Pundu frango diferenteak baidituzte, osorik emanen ditugu:

- 1.—Jesus heldu zelarik Kalbariora,
Kurutzeaz bizkarra ongi kargatua,
Galdegin izan zautan, humiliatua,
Eian utziren nuen borthan pausatua?
- 2.—Nik izatu nuen hain bihotz krudela,
Ezetz erran bainion, ezetz berehala:
"Aparta hadi hortik, gaichto kriminela,
Hi borthan pausatzia afruntu dudala!"
- 3.—Ez da munduan gizonik, ez alimalerik,
Judu herratua bezain malurus dagonik;
Ez nuke uste deus baden ere gai denik
Haren zorthe tristian konpara daitenik!
- 4.—Pasatzen nintzelarik hiri batetarik,
ziotela etzutela ikusi gizonik,
Bi burjes zitzaizkidan jarraiki ondotik,
Oi, ni bezein luzeko bizarra duenik!
- 5.—"Sar zaite ostatura gurekin, gizona,
Izanen duzu edatera arno gorri ona;
Zurekin pasa ginitzazke gau eta eguna,
Bai eta konpli desira duzuna."
- 6.—Sar ere banaiteke ostatura zuekin,
Edan ere badezaket zuen arno onetik;
Jarriko ez naiz, bainan egonen naiz chutik...
Tormentek hartzen naute, oi, jarriz geroztik.

- 7.—Erranen duzu, gizona, kurios girela,
Zure adinaren berri jakin nahi dugula,
Ehun urthe baditutzula iduritzen zaikula...
Edo zure bizarra trompakor da bertzela...
- 8.—Ene hezurak dire arras gogortuak,
Eta denborak orainon ez akhabatuak;
Hmezortzi ehun urte baitut pasatuak,
Hortaz izan zaitezte, oi, seguratuak.
- 9.—Izatu naiz herrietan, bai hiri orotan,
Gertha ahal daitezken gerla guzietan;
Etsempluak aise'tut hartu nik heietan,
Herioak ez duela indarrrik ni baitan.
- 10.—Mundua pasatu dut bortzgarren aldian;
Hiltzen ere badire zoin beren aldian;
Eta ni ezin hilez ibilki munduan...!
Azken iuiamenduan, zeruko lorian.

Sara'n bildu zutela diote. Puntuak luzetxo direla eta ez dela aisa doña ezartzea. Beste aldizkari batetik ere aipatzen omen du kantu au ("Revue Française Politique et Littéraire" Mars, 1912; p. 63 et s.).

R.M. de Azkue.—Lau lekutan beintzat ekartzen du:

Orabarren. (Cancionero Popular Vasco, n.º 428)
Bertso bakarra.

Barkoxekoak bi bertsu baditu. Doña ere bai.
Hazpame'n bildua bertsu bakarra da. (n.º 429).

Mezkiritz'en ameka bertsu artu zituen. (n.º 428).

A. Onaindia.—"Milla Euskal Olerki Eder". (586'gn. orrian). Itzen bat edo bertze aldatuak egonagatik, Nehor eta Dufau'k argiataratuekin batera heldu dira. Iturritako artua du, "Errepikan" (3'gn. or.).

J.M. Satrústegui; L. Dassance. "Judu erratuaren kantiak". Eta "Gai beretik zombait xehetasun" (Gure Herria, 1966'ko Agorrilla. 113-130).

“HERRIA”. Ikusi. 21 Nov. 1963.

Aita Donostia.—A. Donostiak ere baditu puntu zonbait gai ontaz, argitaratu gabeko paperretan. Argitaratzeko asmotan dira. Alare, A. Riezu’k erraiten zigun bezala, A. Donostia musikaria dela kontuan iduki behar da; eta ez izkuntzalaria.

Jesus Jetxi da

Jesus justen da... Kalbariotik
Bere Gurutzeaz ongi kargaturik.
Galde egin izan zerauten umiliaturik
Ene plazer muyenetz atean pausatuturik.

Eta oar auek Aita Riezuri zor dizkiogu: “Tomado al criado de Iribarren, en Lecároz, el día 18 de mayo de 1913. Pero este criado era de Hazparren.

Se publicó en las *Conferencias* de Bilbao (1919), con acompañamiento de piano. No aparece en el Cancionero del P. Donostia; pero consta en el cancionero manuscrito que se conserva en el *Archivo P. Donostia*.

Hay otras notas acerca del Judío Errante, repartidas en sus cuadernos folklóricos inéditos. Algún día verán la luz.

Bazter guzitako jakintsuak okupatu dira bertsu aue-taz. Ona zer zion Justo Gárate jaun ospetsuak Arjentinatik idatzi zidan gutun batean:

“Ahasverus dela ta, Aita Feijoo’k aipatzen du bere “*CARTAS ERUDITAS*” gutunean Asuero basa-sen-dagille bat; (...) Ahasverus Espainian uste dut Spe-raindeo zela.” Goethek eta Edgar Quinet’ek ukitzen dute arazoa biziki” 1966. Lotazillak 17).

Azkue jaunak ere bere iritzia eman zigun (Cancionero Popular Vasco, pág. 483; n.º 386) Erderaz dio:

“Seguramente está, si no a la letra, tomado del francés. Es la misma canción de este mismo grupo “*OTE DA MUNDU HUNTAN*”, con distinta música.

Emulo de Goethe, Schiller, Hamerding y otros poetas de alto vuelo, este maestro poeta gorrión (algún menestral de Barkoxe, en Zuberoa) canta también las penas de *Ahasverus*, el Judío errante; el cual, por haber insultado a Jesucristo, que cargaba con su cruz, viose impelido a errar siempre sin descanso.

De esta leyenda, que parece originaria de Constantinopla hacia el s. IV, hay dos versiones: una oriental, según la cual el Judío errante fue portero de Poncio Pilato; y otra occidental, que le supone zapatero de Jerusalén”.

Azkuek orri hortan ekartzen duen zatia Barkoxen ikasia zuen. Etzen oroit nork errana zakon. Beste iru-lau lekutan ere badakarzki Judu Erratuaren bertsu zonbait.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. M. Soroa: GABON, AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. F. Apalategi, S.I.: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. Pepe Artola: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. P.M. Urruzuno: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. T. Alzaga: RAMUNTXO (*Aitua*).
7. R. Azkarate: GALTZAUNDI.
8. A. Apaolaza: PATXIKO TXERREN.
9. B. Iraola: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. P. Larzabal: BORDAXURI (*Aitua*).
12. Bilintx: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. M. Izeta: DIRUA GALGARRI.
14. P. Larzabal: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. A. M.^a Zabala: GABON GAU BAT.
17. A. M.^a Labayen: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. A. Zavala, S.J.: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. F. Goñi, S.I.: LURDESKO GERTAERAK.
21. P. Larzabal: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. F. Imaz: BERTSO GUZIAK.
25. A.P. Iturriaga: JOLASAK.
26. A. M.^o Zabala, A. Larraitz, Mir: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. B. A. Moguel: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverría*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALLA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala, S.J.*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala, S.J.*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala, S.J.*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala S.J.*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.
65. *J.M. Satrustegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.



1027943

JB-933

J